


Alarma-egoera ikusmiran

Oinarrizko eskubideen murrizketak eta horien eragina herri mugimenduen jardunean



Alarma-egoera ikusmiran:
oinarrizko eskubideen murrizketak
eta horien eragina herri
mugimenduen jardunean

AURKIBIDEA

0. Sarrera.....	7
1. Alarma-egoera: kontzeptua eta ezaugarriak.....	13
2. Covid araudiaren azterketa juridikoa: alarma-egoera dekretuak eta dekretu sozialak.....	17
2.1. Zirkulazio-askatasuna	19
2.2. Eskubide politikoak.....	25
2.2.1. Biltzeko eskubidea	25
2.2.2. Elkartze-eskubidea.....	29
2.2.3. Manifestazio eskubidea	31
2.2.4. Greba eskubidea.....	33
2.3. Lan arloko neurriak.....	35
2.4. Etxebizitzaren eremuko neurriak	38
2.5. Eskumen-banaketa	41
3. Errepresioaren analisi orokorra.....	45
3.1. Errepresio legediaren ibilbidea	45
3.2. Alarma-egoeran aplikatutako araudi errepresiboaren segurtasun juridikorik eza.....	49
3.3. Errepresio mekanismo nagusia: agintea ez obeditzea.....	52
3.4. Administrazio-prozedura zehatzailea: bermerik eta irteerarik gabeko kale bat.	54
3.5. Aholku juridikoak errepresioaren aurrean	56
Ondorioak	61

“Alarma-egoera ikusmiran: oinarrizko eskubideen murrizketak eta horien eragina herri mugimenduen jardunean”

Joxemi Zumalabe Fundazioa
Askatasun Kolektiboetarako Abokatuak (AKAB)

Euskal Herrian, 2021eko ekainean

www.joxemizumalabe.eus

Lege gordailua: D 00920-2021

Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago.



Lizentzia honek lan hau zabaldu eta elkarbanatzea ahalbidetzen dizu, betiere iturria aipatu eta egileen aitortpena eginda eta lizentzia mota bera erabilita.



0 SARRERA

- | -

Joxemi Zumalabe Fundazioa Euskal Herrian beste jendarte-eredu baten alde lanean ari diren herri-mugimenduetatik, -mugimenduekin eta -mugimenduentzat lan egiten duen eragilea da. Gure helburu nagusia mugimenduok egiten duten ekarpen sozial eta politikoa ikusaraztea, sendotzea eta merezi duen errekonozimendua ematea da.

Azken urtean, geurera COVID19aren fenomenoak heldu den honetan, garai nahasiak bizi ditugu: osasun krisiari bestelako krisiak gehitu zaizkio (ekonomikoa eta soziala), eta horiei estuki lotuta kezkak, beldurrak, ezjakintasuna eta ziurgabetasuna nagusitu dira geure inguruan.

Jendarteko beste alorretan bezalaxe, errealitate hau oso presente egon da, eta oraindik badago herri-mugimenduen jardunean. Bildu ote gaitzkeen ala ez, biltzeko zer egin behar dugun eta zein baldintza bete behar ditugun... ez daukagu batere argi. Oro har elkartzeko, deialdiak egiteko zein kaleak hartzeko orduan zalantzak eta beldurrak sortzen zaizkigu. Egoera honen aurrean arduraz jokatu nahi dugu, baina arduratik haratago doan neurri jazartzaileen mehatxua inoiz baino argiago sentitzen dugu.

Egoera honen aurrean, Joxemi Zumalabe Fundaziotik zera adierazi nahi dugu:

- Herri mugimenduon jardunak, betiko eliteek presente ez badute ere, ezinbestekoa izaten jarraitzen duela gaur egun.



Aurretik zeuden desoreketan sakondu duen krisi garai honen aurrean salatzen, borrokatzen, erresistitzen eta alternatibak eraikitzen jarraitu behar dugu, zailtasunak zailtasun. Injustiziaren eta batzuek eraikitako diskurtso kriminalizatzaileen aurrean, herri mugimenduen beharrezkotasuna, zilegitasuna eta presentzialtasuna aldarrikatu nahi dugu.

- Ildo beretik, osasuna eta segurtasuna aitzakiatzat hartuta hartutako hainbat erabaki eskubide sozial eta politikoen kontrakoak izan direla salatu nahi dugu. Horrez gain, zenbait mugimenduk jasandako erasoak salatu nahi ditugu (zenbait espazio autogestionatuen desalojoak, esaterako).

- Gauza asko aldatu diren arren, aktibazio soziala eta auto-antolakuntza indartzea lehen bezain garrantzitsua edo are garrantzitsuagoa dela uste dugu. Gure jardunaren kriminalizazioaren eta prekarizazioaren aurrean elkarlanean eraikitako tresna eraldatzaileak sortzeko beharra azpimarratu nahi dugu, danon artean zailtasunei, mehatxuei eta erasoei aurre egiteko bideak zabaltzen jarrai dezagun.

Guzti honengatik *Askatasun Kolektiborako Abokatuak* (AKAB) kolektiboko abokatuekin batera esku-artean duzun gida hau egiteko erabakia hartu dugu, herri-mugimenduentzako tresna izan dadin, hain beharrezkoa den jarduna egiten jarraitu ahal izateko. Horretarako maila juridikoan gertatutako aldaketak -horietako batzuk betikotzeko arriskua dutelarik- kokatu nahi ditugu hurrengo orrialdeetan, horiek ondo ulertzeko eta kritikoki aztertzeko.

Elkarlanetik eta herri jakintzen aitortzatik jaiotako liburutxo hau baliagarria izatea espero dugu.

Joxemi Zumalabe Fundazioa
Euskal Herrian, 2021eko ekainean.

Gida honekin, Hego Euskal Herrian Covid-19aren testuinguruan izandako eskubide murrizketen berri eman nahi dugu; nahiz eta Iparraldeko egoerari buruzko aipamen txiki bat ere egiten dugun, arau-aniztasunak zaildu egiten du bi tokien azterketa egitea; beraz, oraingoan, Hegoaldean gertatu dena aipatzera mugatuko gara.

Sufritzen ari garen pandemiak zentzu askotan eragin digu egunerokotasunean eta jasan ditugun aldaketak hain esanguratsuak izan direnez, oro har, gizartea *shock* egoera batek astinduta dago. Abiapuntu hori izanda, jendearen beldurra erabili da eremu eta maila guztietan oldarraldi errepresiboa gauzatzeko.

Epe laburrean eta ia erreakzio aukerarik gabe, jendartea posizio erabat polarizatueta kokatzen hasi da, ikuspegi kolektiboa alboratu eta posizio liberalak gailendu diren talka honetan; eztabaida politikoa desitxuratzeko, eskubideak erdiesteko egin beharreko bideari buruzko, eta honetan aurrera egiteko tresnei buruzko eztabaidak bigarren maila batean kokatuz.

Zientzia- eta osasun- ikuspegitik aztertu beharreko ezaugarriak alde batera utziz, gida honekin, herri langile bezala autodeterminatzeko beharrezko ditugun tresnak nola erasotu diren hausnartuko dugu, eta hori oinarri izanda, aurrera egiteko bideak aztertzeko elementuak adieraztera gatoz.


Gure asmoa ez da inondik inora egoeraren nondik norako guztiak azaltzea eta irtenbide oro ematea, eztabaidarako elementuak mahaigaineratu nahi ditugu. Herri mugimenduaren esku dago eztabaida honetan murgiltzea eta herri langile gisako ondorioak aterata aurrera egitea. AKAB bera herri mugimenduko parte den heinean, eztabaida horretan sakontzera gatoz eta horri bide emateko prestatu dugu gida hau, oinarritzko eskubideen alorrean izandako murrizketa eta aldaketen analisisia egin dugularik.

Lanaren egiturari dagokionez, lehenik eta behin, alarma egoera eta honen ondorioz izandako eskubide murrizketen azterketa juridikoa egingo dugu eta ondoren, errepresioaren analisia egitera pasako gara, ezin baita estatutik datorren eskubide murrizketa ulertu errepresioaren marko teorikoa aztertu gabe. Honen baitan, errepresioaren aurrean jarduteko aholkuak emango ditugu.

Esan bezala, balio beza gida honek horren beharrezkoa den eztabaidan laguntzeko, beti ere Euskal Herriaren askatasunaren bidean pauso bat aurrera egin dezagun.

Askatasun Kolektiboetarako Abokatuak (AKAB)

Euskal Herrian, 2021eko ekainean.





ALARMA-EGOERA: Kontzeptua eta ezaugarriak

Alarma-egoera **salbuespenezko erregimen** bat da, aparteko inguruabarrek normaltasunari eragitean aplikatzen dena; beti ere, botere arrunten bidez ezinezko bihurtzen bada normaltasun hori berrezartzea. Beste era batera esanda, ohikotasunean nahaste edo aztoramen larria gertatzean aplikatzen den egoera berezia da.

Finean, estatuak ezinezko badu ohiko legediaz eta bertan aurreikusitako bideetatik ez-ohiko egoera larri bati erantzun, alarma-egoera edo bestelako salbuespen erregimena ezarriko da. Beti ere ahaztu gabe salbuespen egoera dela; hau da, ohiko legediaren bitartez aurre egin badakioke larrialdiari, bertako baliabideak erabiliko dira. Gainera, azpimarratu behar dugu salbuespeneko erregimenak errealitatean ematen diren baldintza objektiboen arabera izan behar direla; estatuaren inpunitatea handia bada ere, arbitrariotasunak bere mugak baititu.


Figura juridiko honen erregimena Espainiako Konstituzioko 116. artikuluan aurreikusten da, eta ondotik, haren garapena jasotzen du alarma-, salbuespen- eta setio-egoerei buruzko ekainaren 1eko 4/1981 Lege Organikoak (1-3 artikuluetan arau orokorrak eta 4-12 artikuluetan arau zehatzak).

Bide horretatik, Espainiako Gobernuak ahalmena izango du alarma-egoera deklaratzeko estatuko lurralde osoan edo zati batean, **normaltasunean aldaketa larriak eragiten dituzten osasun-krisiak gertatzen direnean** (4/1981 Lege Organikoko 4.b) artikulua). Horrela, gobernuak aldarrikatuko du alarma-

egoera, Ministro Kontseiluan erabakitako dekretuaz baliatuz. Haren berri emango zaio Diputatuen Kongresuari. Alarma-egoeraren gehienezko iraupena hamabost egunekoa izango da; noski, luzatzeko aukera egonik Diputatuen Kongresuaren baimenarekin.

Dekretuan bertan zehaztuko da zein lurralde barrutitan aplikatuko diren neurriak, haien iraupena, bai eta neurrien irismena noraino heltzen den. Oro har, ondorengo neurriak har daitezke: pertsona edo ibilgailuen joan-etorria edo egonaldia ordu eta toki jakin batzuetan mugatzea, ondasunak aldi baterako eskatzea, nahitaezko prestazio pertsonalak ezartzea, lantegiak edo lokalak aldi baterako okupatzea, zerbitzuen erabilera edo premiazko artikuluen kontsumoa mugatzea, eta ekoizpen zentroetako zerbitzuen funtzionamendua eta merkatuen hornidura bermatzeko behar diren aginduak ematea.

Gainera, alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz, deklarazioak eragindako lurraldeko Administrazio Publikoko agintari zibil guztiak, autonomia-erkidegoetako eta toki-korporazioetako polizia-kidegoetako kideak, eta horien zerbitzura dauden gainerako funtzionarioak eta langileak agintari eskudunaren agindupean geratuko dira. Hori bai, soilik pertsonak, ondasunak eta lekuak babesteko beharrezkoa den guztietan. Era berean, aparteko zerbitzuak ezar dakizkieke, haien iraupenaren edo izaeraren arabera. Horrez gain, komeni da azpimarratzea agintarien aginduak ez betetzea edo horiei aurka egitea zigortuko dela.





2 COVID ARAUDIAREN AZTERKETA JURIDIKOA: Alarma-egoera dekretuak eta dekretu sozialak

Osasunaren Mundu Erakundeak 2020ko martxoaren 11n nazioarteko pandemia gisa deklaratu zuen COVID-19 gaixotasunak eragindako osasun publikoko larrialdi-egoera. Espainian, otsailean atzeman ziren lehen koronabirus kasuak eta egunak pasa ahala egoera okerrera zihoan, intzidentzia tasa etengabe igotzen zelarik. Pandemiari aurre egiteko pare bat neurri hartu ziren baina euren eraginkortasuna mugatua zen heinean, bestelako tresna juridiko bat erabiltzeko beharra ikusi zuen gobernuak.

Zuzenbide Estatu batek hainbat erreminta juridiko ditu errealitate sozialei aurre egiteko; gure kasuan, alarma-egoeraren bidea hautatu zen larrialdi mediko, ekonomiko eta soziala kudeatzeko, baina honetaz gain, araudi zabala garatu behar izan zen krisi honek eragin zituen milaka problematikei erantzun juridikoa emateko.

Aski ezaguna dugun **martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak** eman zion hasiera alarma-egoerari eta oinarri juridiko sendoa ezarri zuen ondoren etorriko ziren ehunka dekretu eta xedapenak argitaratzeko. Honela, alderdi asko jorratuko zituen korpus juridikoa osatu zen. Azaleratzen ari ziren **ondorio sozioekonomiko eta laboralei aurre egiteko dekretuak** garatu ziren, Espainiar Gobernuak sustatutako “Ezkutu Soziala” delakoaren testuinguruan. Hartutako neurrien adibide argiak ditugu aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (ABEEE edo *ERTE* gisa ezagutuak), etxe-gabetzeen debekuak, aldi baterako

kontratuen mugaketa eta elektrizitatearen eta uraren hornidura bermatzeko neurriak.

Koronabirusaren intzidentzia tasa kontrolatzen hasi ahala, alarma-egoera deklaratzeko hartutako arauak leuntzen hasi ziren. Arintze-faseetan oinarritutako plan bat egin zen **“normaltasun berria”** arautzeko eta tokiko osasun egoeraren arabera neurri zehatzak arintzen hasi ziren. Hauen bitartez, jada ohikoak ziren eskubide mugaketa batzuk gizartean finkatu ziren; hala nola, elkartzeko eta biltzeko murrizketak (eta eskubide politikoak oro har), kutsatzeak ez areagotzeko arrazoipean etengabe mugatu direlarik. Era berean, bigarren alarma-egoera ekiditeko neurriak ezarri ziren, bai eta krisi ekonomikoak eragindako kalteei aurre egiten saiatzeko.

Baina, uda pasa zenean pandemiaren egoera okerrera zihoan eta martxo-apirilako gaixo zein hildako kopuruetera iristen ari ginen. Hori dela eta, bigarren alarma-egoera deklaratzeko beharra azaleratu zen, **urriaren 25ko 965/2020 Errege Dekretuaren** bidez ezarri zena. Bigarren dekretu honek aurrekoaren ildo bera jarraitu zuen aldaketa nabarmen batzuk mahai gaineratuz: konfinamendu orokorraren baztertua eta ordezkotako neurrien ezarpena (nagusia, etxeratze agindua edo *toque de queda* izanik) edota eskumen banaketaren aldaketa.

Dekretu horrek 2021eko maiatzak 9raino iraun zuen, eta ondotik, **autonomia erkidegoek erabaki dute euren lurralde esparruan zer-nolako osasun neurriak hartu**. Neurri hauek egoerarekiko proportzionalak izan behar dira eta motibatuak egon behar dira, hain zuzen ere, oinarritzko eskubideen mugaketei buruz gabiltza hitz egiten, eta horrelako neurriak hartzeko arrazoi justifikatuak egon behar dira eta frogatu beharko da ezin dela bestelako neurri aringarrik aplikatu egoera kontrolatzeko.

Araudi anitz eta aldakor honek baditu hainbat elkargune eta ezaugarri komun. Hurrengo lerroetan araudiaren ildo nagusiak aztertuko ditugu eta horien ondorio nagusiak azaleratuko ditugu, azken urtean osasun-larrialdiari eman zaion irtenbide juridikoa bere osotasunean baloratuz.

2.1. Zirkulazio-askatasuna

Zirkulazio askatasunaren irismena oso zabala da, eta gure egunerokotasunean oinarritzko eskubidea dugu. Espainiar Konstituzioak haren 19. artikuluan jasotzen du eskubide hau, funtsezko eskubide eta askatasunak biltzen dituen sekzioan. Hitz gutxitan, **espainiar lurraldean modu askean mugitzeko eskubidea litzateke**.

• Lehen alarma-egoera

Askatasun honen mugaketak **aldaera asko izan ditu osasun-larrialdian zehar**. Hasiera batean, aski ezaguna dugun konfinamenduaren bitartez mugatu zen eskubide hau, gure etxebizitzatik ateratzeko salbuespen zehatz eta mugatua ezarri.

Lehenbiziko alarma-egoera dekretuak **honako salbuespenak zehazten zizkion zirkulazio-askatasunaren mugari**: Elikagaiak, farmazia- zein oinarritzko-produktuak erostea, osasun zentroetara joatea, lantokira joatea, ohiko bizilekura itzultzea, adinekoak, adingabeak, ezgaituak edo bereziki ahulak diren pertsonak zaintzea, finantza eta aseguru entitateetara joatea, bai eta bestelako ezinbesteko kasuetarako. Ibilgailua erabili zitekeen jarduera hauek burutzeko, bai eta, gasolindegietara joateko.

Salbuespen hauek artikulua bakarrean biltzen ziren, inolako garapen edo sakontzerik gabe. Ondorioz, oinarritzkoa den **zirkulazio-eskubidea modu nagia eta arriskutsuan mugatu zen**, garrantzi handiko puntuak arautu gabe utziz.

Zehaztugabetasun hau herritarron eskubideen aurkako eraso larria bilakatu zen. Irizpideen faltan, indar polizialek haien irizpide propioak aplikatu zituzten, segurtasun juridikoa urratuz; ekintza berdina egiteagatik batzuetan isuna jaso zenezakeen, edo bestetan ez. Esaterako, txakurrak paseatzea onartua egon arren, isunak jartzen ziren etxetik urrunegi

paseatzeagatik (zer kontsideratzen da urrun, 1km, 2km?), denbora gehiegi emateagatik (poliziek jarraipenak egin al zituzten denbora kontrolatzeko?) edota egunean gehiegitan paseora irteteagatik.

Baimendutako jardueren artean oinarrizko elikagaien erosketa zegoen. Kasu hauetan ere irizpide polizialak gailendu ziren, eta asko izan ziren urrunegi zeuden supermerkatuetara joateagatik edota “oinarrizkoak ez ziren elikagaiak” erosteagatik ezarri ziren isunak. Beste modu batean esanda, agentearen ustez oinarrizkoak ez ziren erosketak egiteak isuna merezi zuen, lekualdaketa hori ilegala zela ondorioztatuz.

Zirkulazio-mugaketak bete-betean eragin zion zaintza-lanei, senide gaixoen zaintzara mugatu baitzen bakarrik lekualdatzeko baimena. Bestelako zaintza-lanak (osasan-mentalaren zaintza oinarri zutenak, esaterako) debekatuak izan ziren. Hala ere, aipatu beharra dago ziurtagiri ofizialen faltan zaintza-jarduerak frogatzea hasiera batean ia ezinezkoa izan zela, parte mediku edo psikikoen faltan ezin baitzen autoritateen aurrean lekualdaketa justifikatu.

Nabarmentzekoa da mekanismo errepresibo ororen moduan, isun-prozedurek kostu handia dutela, jarraipen polizialaz gain administrazioko langile askok parte hartzen baitute prozeduran zehar. Honela, are arbuigarriagoa da prozesu administratibo hauek kasuistika hain errugabe eta arinetara aplikatzea, ez da batere proportzionala.

Osasan-larrialdiak jarraitu ahala, azaleratzen hasi ziren problematikei aurre egiteko asmoz **zirkulazio-askatasunaren mugaketa aldatuz joan zen modu arbitrarioan**, jarduera batzuk onartuz eta beste batzuk mugatuz. Honela, Gobernuaren edo poliziaren zirkularren bitartez jarduera berriak onartu ziren, esaterako, txakurra paseatzea. Arau zehatzik egon ez arren, jarduera hau onartua izan zen deklarazio publiko eta irizpide polizialen aldaketengatik, segurtasun juridikoa guztiz kolokan jarritz.

• Arintze-faseak eta Bigarren alarma-egoera

Lehen konfinamendu sasoia amaituta, askatasun hau beste modu batera zedarritu zen: **lurraldearen arabera**. “Normaltasun berria” erdietsi bidean deklaratu ziren faseek askatasun hau lurraldeka mugatu zuten; lehenbizi, zirkulazioa norberaren bizileku ingurura mugatu zen (km 1), ondoren udalerrietara, lurralde historikoetara, autonomia erkidego mailara, eta azkenik uda sasoiari, espainiar lurralde osora.

Fasez fase askatasun hau zabaldu edo mugatuz joan zen, **alarma-egoera berriak (urriaren 25ekoak) inflexio-puntu garrantzitsua ekarri arte, etxeratze-agindua** (*toque de queda* delakoa). Neurri hau gerra-egoeretan edo antzekoetan aplikatu ohi da (Kolonbian 1970an, Txilen 1973an, Espainian 1981ean), eta **ordu zehatz batzuetan kaleetan askatasunez ibiltzeko eta leku publikoetan egoteko debekua dakar**. kontaktu soziala mugatzea du helburu neurri honek, haren betearazpena berriz ere segurtasun indarren eskuetan utziz.

Alarma-egoera dekretuko 5. artikularen arabera, etxeratze-agindua 23:00etatik 06:00etara bitartean ezarri zen. Hala ere, ordu hauek aldatzeko eskumena luzatu zitzaion autonomia-erkidegoei, mugapenaren hasiera-ordua 22:00etatik 00:00etara eta amaiera-ordua 5:00etatik 7:00etara zabaltzeko tarte aitortuz. Halaber, lehen konfinamenduan bezalaxe, hainbat salbuespen ezarri ziren askatasun hau praktikan jarri ahal izateko.

Ilido beretik, dekretu berri honek **autonomia-erkidegoen perimetroa ixtea agindu zuen**. Horren arabera, mugatu egiten da autonomia-erkidego bakoitzeko pertsonen sarrera eta irteera; mugikortasuna kasu zehatzetan soilik onartuz. Neurri honek harreman sozial eta ekonomiko estua duten erkidegoei eragin die modu zuzenean, esaterako Hego Euskal Herriari, bi autonomia erkidegoren artean zatituta geratu baita.

Azkenik, aipatzekoa da Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako **zonaldeko konfinamendua**. Kutsatze-irizpide objektiboen arabera euskal geografia

zonaka mugatu zen, kalifikazio zehatzak ezarri; zonalde gorriek, esaterako, mugikortasuna debekatua izango dute haien mugetatik kanpo. Pandemian zehar zonalde hauen mugatzea ere aldatuz joan da, askotan beste herrietako tabernetara edo dendetara joatea baimenduz, beste lekualdaketak debekatzen diren bitartean (adibidez, zaintza-lanak gauzatzeko).

Maiatzaren 9an, bigarren alarma egoera bertan behera gelditu zenean, Hego Euskal Herrian **zirkulazio askatasuna berrezarri zen**, iazko urritik lehen aldiz. Honek, oro har, autonomia erkidego batetik bestera mugitzeko askatasun osoa suposatu du, bai eta etxeratze aginduaren deuseztea.

• Mugaketaren azterketa juridikoa

Bigarren alarma egoera amaitzean Autonomia Erkidegoen esku utzi da hartu beharreko osasun neurriak erabakitzea. Edonola, bat-batean alarma egoerako neurriak deuseztatzeak eztabaida ekarri du jurisprudentzian. Hain zuzen, oinarrizko eskubideen mugaketak onartzeko oinarri juridiko zehatz bat behar da, alarma egoeraren dekretua adibidez. Baina behin alarma egoera bertan behera uztean, bestelako oinarri juridiko bat behar zen oinarrizko eskubideak mugatzeko, eta hor zalantzak egon ziren ea osasun araudia nahiko oinarri izan zitekeen edo ez. Erreferentzia gisa erabilitako osasun araudiak ondorengoak izan dira: 3/1986 Lege Organikoa, apirilaren 14koa, Osasun Publikoaren Arloko Neurri Bereziei buruzkoa (3. eta 26. art.), 14/1986 Lege Orokorra, apirilaren 25ekoa, Osasunari buruzkoa (26. art.) eta 33/2011 Lege Orokorra, urriaren 4koa, Osasun Publikoari buruzkoa (54. art.).

Legedi hauen adierazpenak nahiko orokorrak dira eta modu abstraktuan ezaugarritzen dituzte hainbat kontzeptu, beraz, hauek erabiltzea oinarrizko eskubideak murrizteko oinarri juridiko gisa zalantzarria eta eztabaidatua izan da. Lege hauek diotenari jarraituz, murrizketak ezar daitezke, beti ere, herritarron osasuna babestea bada helburu eta gaixotasuna zabaltzeko arrisku handia badago. Noski, neurri hauek

momentuko egoerarako proportzionalak izan behar dira, eta frogatu behar da ezin dela bestelako neurri arinagorik hartu gaixotasunak herritarrongari dakarren arriskua kontrolatzeko.

Eztabaida hau epaitegietan garatu da. Adibidez, alde batetik, EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak adierazi zuen osasun araudia oso orokorra dela eta zehaztasun falta horrek ez ziola babes juridiko nahikorik ematen osasun autoritateek eskatutako oinarrizko eskubideen mugaketei. Hori dela eta, etxeratze aginduaren eskaera bertan behera utzi zen.



Donostiko umeen parke bat, lehenengo itxialdian
(Iturria: Irutxuloko Hitza)

Kontrako ildotik, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren aburuz, osasun araudiak berme juridikoa ematen dio osasun autoritateen oinarrizko eskubideak mugatzeko ahalmenari. Baina noski, mugaketa horiek emateko egokitasun, beharrezkotasun eta proportzionaltasun irizpideak kontuan hartu behar direla dio.

Zegokion kasuan, justifikazio faltan oinarriz, etxeratze aginduaren eskaera bertan behera utzi zuen, baina atea ireki du horrelako neurria hartzeko beste momenturen batean, nahiko justifikatzen bada. Ildo beretik epaitu zuten Balear Irletako eta Valentziako epaitegiek; hauek itxiera perimetrala bertan behera utzi dute baina etxeratze agindua mantendu dute.

Oro har, ikusi dugu alarma-egoera dekretuak indarra galtzean horrelako murrizketak onartzeak oinarri juridiko zalantzarria dutela. Hain zuzen ere, oinarritzko eskubideak Konstituzioan aurreikusitako eskubideak dira, herritarroi berariaz dagozkigunak. Hori dela eta, eskubide horiek garatzeko eta mugatzeko beharrezkoa da lege organiko batean halako adierazpen zehatza egitea, eta mugaketei buruzko adierazpenak aurreikustea. Bide horretan oinarrituz mugatu dira orain arte eskubideak, alarma-egoeraren figura eta hark dakarren eskubideen murrizketa alarma-, salbuespen- eta setio-egoerei buruzko ekainaren 1eko 4/1981 Lege Organikoan aurreikusia baitago.

Hala ere, Auzitegi Gorenak eman dio amaiera eztabaida honi (719/2021 Epaia, maiatzak 24koa eta 788/2011 Epaia, ekainak 2koa): Lege arrunten babesaren bidez egin daitezke oinarritzko eskubideen murrizketak, beti ere murrizten den eskubidearen oinarritzko edukia errespetatzen bada; aldiz, murrizketak oinarritzko eduki edo esentzia horri eragitekotan, beharrezkoa da lege organiko baten babesa egotea. Noski, hartutako neurriak egokiak, beharrezkoak eta proportzionalak izan behar dira. Hau da, administrazioak frogatu beharko du ez dagoela bestelako neurri aringarrik hartzerik egoera kontrolatzeko eta oinarritzko eskubideen murrizketa proportzionala eta egokia dela osasun helburuak lortzeko.

Beste era batera esanda, **osasun autoritateek eskumena dute oinarritzko eskubideak murrizteko araudiak emateko, murrizketa horiek nahiko justifikatzen badituzte**; horretarako babesa aurreikusten baitzaie osasun araudian.

Murrizketen eremu berdinean jarraituz, Ipar Euskal Herriko egoera orokorra aztertzea ere daukagu. Bertako egoera desberdina da, koronabirusaren garapena ezberdina izan da eta konfinatuak egon dira hemen bezalaxe, eta ondorioz, eskubideen mugaketak eman dira ere. Arintze faseetan antolatutako araubidea osatu dute eta intzidentzia tasaren arabera elkartzeko eskubidea mugatua izan dute eta etxeratze agindua ere ezarri diete. Intzidentzia tasa baxua izan duten garaietan, aukera izan dute

euren etxebizitzatik 30kmko radioan ibiltzeko baina ordura arte ezinezkoa zuten Hego Euskal Herrira etortzea. Edonola, txertaketa prozesua ere abian dago bertan eta uda aldera neurriak arintzea espero da, estatu arteko mugak pasatzea ahalbidetzea itxaronez.

2.2. Eskubide politikoak

Oinarritzko eskubide guztien moduan, ezin da gizarte demokratikorik erdietsi elkartzeko-eskubiderik gabe; azken batean, gure egunerokoa ematen diren interakzioen eta jardueren funtsa da, irismen handikoa eta aldaera asko dituen. Honela, eskubide honen eskepena aztertze orduan hainbat plano bereiziko ditugu bere osotasunean ulertu ahal izateko.

2.2.1. Biltzeko eskubidea

- Lehen alarma-egoera

Lehen Alarma-Egoerak aurrekaririk gabeko neurria ekarri zuen berekin, **pertsona taldeak biltzea mugatzea**, bai eremu publikoetan bai pribatuetan.

Konfinamenduaren hasieran ezinezkoa zen etxe berekoa ez zen inorekin biltzea, elkartzeko bide ematen zuten leku fisiko nagusiak itxiak zeudelako; hala nola kirol establezimenduak, ostalaritza eremuak eta kultur guneak, eta bide publikoan egotea ere debekatua zegoen. Bakantze hori hiru hilabetez zorrotz mantendu zen.

Dakigunez, oinarritzko zerbitzuak eskaintzen zituzten lantegi eta establezimenduak irekiak egon ziren, eta hainbat lekutan segurtasun distantzia mantentzea ezinezkoa zela argudiatuz, langileak behartuak zeuden elkarrekin egotera lanordu osoan, segurtasun neurriak errespetatzea nabarmenki zailduz eta biltzeko debekuen salbuespen gisa jokatu. Hautemangarria zen bezala, infekzio-gune argiak bihurtu ziren.

Lantokira joateko obligazioa ezarri zenez, garraio publikoaren erabilera mantendu behar zen, baina segurtasun neurriak errespetatzeko zerbitzuen eskaintza areagotu beharrean, bere hartan mantendu zen, bai eta murriztu hainbat ibilbidetan. Honek irudi harrigarriak mahaigaineratu zituen hedabideetan, ezinezkoa zen bizitoki ezberdinetako pertsonen harreman zirkulu itxi bat eraikitzea sozializatzeko, baina bidezkoa zen autobus eta trenak lepo beteak joatea egunero.

• Arintze-faseak eta Bigarren Alarma-Egoera

Maiatzean normaltasun berrirako trantsizio plana onartu bezala, arintze faseen bidez, alarma egoera dekretuko neurriak leuntzen hasi ziren. Bide horretatik, poliki-poliki eremu publiko zein pribatuetan biltzeko aukera zegoen, oro har, **pertsona taldeak gehienez ere 6 pertsonakoak izan zitezkeelarik**, bizikideak ez balira behintzat.

Neurri orokorra alarma-egoera dekretuan jaso arren, autonomia-erkidegoek malgutu edo zorrotzu zezaketen. Adibidez, ostalaritza eremuetan gehienez ere 4 pertsona biltzeko neurria ezarri zen, 6 pertsonaraino zabaldu zitekeen arren Nafarroako ostalaritza eremu irekietan. Era berean, kultu lekuetako, kirol establezimenduetako eta bestelako ospakizunetako edukierak mugatuak izan ziren intzidentzia-tasa handitzen zen aldiro. Bigarren alarma-egoeran ezarritako neurriak ere parekoak izan ziren, elkartzeko aukera egon den egunetan 4-6 pertsonako taldeetara mugatu ziren elkartzek, momentuko herri bakoitzeko intzidentzia tasaren arabera.

Bigarren alarma-egoera bertan behera gelditu zenean, hirugarrenekin biltzeko aukera berrezarri zen. **EAE**n eremu pribatuko bilerak mugatu nahi izan ziren baina EAEko Auzitegi Nagusiak ez zuen neurri hori onartzen utzi, beraz, **eremu pribatuan biltzeko eskubidea dago, mugarik gabe. Edukiera- mugak soilik kirol eremuan eta ostalaritzan ezarri dira**, ostalaritzaren ordutegiak luzatu egin dira, eta haien edukierak, bai eta kirol zein kultura jardueratakoak, handitu

egin dira. **Nafarroako egoera ere antzekoa da, eremu pribatuetako bileren inguruan, gomendio orokorra da 8 pertsona baino gehiago ez elkartzea**, eta **eremu publikoetako jardueretan eta zerbitzuetan edukiera mugaketak** ezarri dira. Neurri guzti hauek etengabe aldatzen eta arintzen doaz txertaketa prozesua aurreratzen eta intzidentzia tasa jaisten doan heinean.

• Murrizketaren azterketa juridikoa


Gure egunerokotasunean ezinbesteko eskubidea izanik, murrizketa honen betearazpena bereziki zaila izan zen, isun-prozedurak autoritateen erreminta nagusia bihurtu zirelarik.

Batetik, eremu publikoan polizien arbitrariotasuna gailendu zen. Arintze-faseetan jarduera bereziak egiteko baimenak zabaldu ahala (kirol- edota kultur-jarduerak, esaterako), aisialdian neurriak modu zorrotzean aplikatu ziren. Besteak beste, lagun taldeen elkarretaratzeak debekatu ziren, edota tabernetan edukiera gaintzeagatik isunak ezarri.

Gaztetxeen kasua adibide argia dugu. Gasteizko edo Oñatiko esperientziak eskuetan, agerikoa da autoritateek irizpide nahasiak erabili dituztela neurri politikoak hartzeko. Jarduera kultural zein politikoak debekatu ziren osasun-neurriak betetzen ez zirela defendatuz, argudio bakar moduan lizentzia falta aurkeztuz; haien hitzetan, jarduera hauek egiteko lizentziarik ez zuten gaztetxeek ezin zituzten ekintza hauek aurrera eramane, eta fikzio juridiko lotsagarria eskuetan, gazte-lokal moduan deklaratu zituzten.

Batetik, deklarazio juridikoak errealitatearekin aurrez-aurre talka egiten duelako, ezin zaio subjektu edo objektu bati bera ez den zerbaiten izaera juridikoa eman, horrekin etorriko diren neurriak ez baitzaizkio aplikagarri. Honela, gaztetxeak gazte-lokal moduan ulertuz (aisialdirako lokalak, etxebizitzaren behetan kokatzen direnak, batez ere adin txikikoak daudenak), hauek irekitzeko debekua ezartzen zitzaienten, Covid legediak agintzen zuen

moduan. Debeku honek gazte-lokalen errealtateari erantzuten zion -lagun taldeak, distantzia falta, espazio txikiak etab. -, ez gaztetxe baten maila politikoko izaerari.



Eusko Jaurlaritzaren irizpideak gaztetxeekiko (Iturria: Eusko Jaurlaritza)

Izan ere, espazio hauetan une oro jarduera publikoetan bilerak gauzatzeko araudia errespetatzen zen, distantziak, edukiera eta garbitasuna zainduz. Taberna eta ekitaldi komertzialetan neurriak lasaituz joan ziren heinean, gaztetxeetan jarduna guztiz debekatu zen, irizpide sanitarioen gainetik politikoak aplikatuz. Ondorioz, eskubide honen murrizketa larri eta nabarmena gauzatu zen, hainbat isun-prozedura martxan jarri zirelarik.

Baina, ohikoa den moduan, eremu pribatuan orokortu ziren jarduera polizial irregularrak. Osasun-krisiak zabaldu zuen *shock* sentsazioa aprobeztatuz, **etxebizitza pribatuen esku-hartzea orokortuz joan zen** festa ilegalak ematen ari zirenean aitzakiapean. Etxebizitzaren bortxaezintasuna oinarritzko ondasun juridikoa dugu gure ordenamenduan. Kasu oso zehatzetan urratu ahalko da, zehazki, jabearen baimenarekin, delituren bat ekiditeko, delitu bat ematen ari bada edota epaile batek agintzen badu. Covid araudiak ezarritako zigorrak ez ziren penalak, inondik inora ere, baizik eta Osasun Publikoaren Legeak ezarritako zehapen-araudia aplikatzen zuen, isun administratiboak, azken batean. Ondorioz, festa ilegalen aitzakiapean gauzatutako etxebizitzaren esku-hartzeak ez zuten

oinarri juridiko nahikorik, covid araudia urratzeak ez baitio estaldura ematen maila horretako ekintza polizialei.

2.2.2. Elkartze-eskubidea

• Lehen alarma-egoera

Oinarritzko eskubideez ari garen honetan ezinbestekoa da elkartze-eskubideari erreferentzia egitea, azken batean, zentzu politiko handiko eskubidea baitugu. Hitz gutxitan, **elkartze-eskubideak antolatze askatasuna aitortzen digu, xede zilegi batzuk erdiesteko erakundeak eta elkarteak sortzeko ahalmena suposatzen duelarik.**

Alarma-egoeraren ezarpenak ez zuen eskubide honen esekipenik aurreikusi, praktikan oztopatu bazen ere. Eskubidea ez zen zuzenean mugatu, antolatze gaitasunak zutik jarraitu zuelarik (elkartasun sareak sortu ziren, esaterako) baina **ez zen eskubide honen sustapenik eman eta traba eta oztupoak jarri ziren egikaritu ahal izateko**. Izan ere, lanerako edo erosketetarako lekualdatzeak onartzen ziren bitartean, arrazoi politikoetarako lekualdaketak guztiz debekatu ziren, osasun-neurrien errespetua bermatuta egonda ere.

• Arintze-faseak eta Bigarren Alarma-Egoera

Arintze faseek elkartze-eskubidearen itzulera ekarri zuen berekin, hiru hilabeteko geldialdiaren ondoren. Eskubide hau berme osoz gauzatu zitekeela agerian geratu zen orduan, beste esparruetan bezala osasun-neurri minimoak hartuz. Horrela, egungo osasun neurriek diotena begiratu beharko da edonolako elkartzeak, bilkurak edo bestelako ekimenak antolatzeke. Oro har, hainbat jarduera debekatuak daude oraindik, adibidez, jarduera sozial edo kulturekin lotutako baimen administratiborik ez duten lokalak “gazteen lokal” gisa kalifikatuak izan dira eta itxiak mantentzen dira, bestelako sozietate edo lokalen moduan. Eta ildo beretik, leku publikoetan edari alkoholodunak kontsumitzea

debekatua dago eta edukiera mugaketak ezartzen dira, hala nola, ekimen sozial eta kulturalak edo azokak antolatzeke.

Mugaketa hauek, antolakunde politikoen jarduna zuzenean erasotu du sasoi luze batez, alarma-egoeraren ezarpenean Estatuak izandako irizpide politikoak mahai gaineratuz.

- [Murrizketaren azterketa juridikoa](#)

Agerikoa da jendartearen antolaketa politikorako funtsezko eskubidea dugula elkartze-eskubidea, funtsean, antolakuntza politikorako tresna garrantzitsuena baita; pentsamendu-, adierazpen- eta bilera-askatasunen luzapenetako bat da, eta parte hartzeke eskubidearen aurrekari bat. Ildo honetan, babes berezia merezi duen eskubidea dugu, autoritate publikoen esku-hartzerik gabekoa.

Honela, ez da Estatuaren aurretiazko baimenik beharke antolakunde hauek sortzeko. **Helburu zehatz bat lortzeko asmoarekin biltzen diren norbanako guztiek egikaritzen dute eskubide hau**, izaera juridiko zehatzik emateko beharrik gabe. Beste modu batean esanda, eskubide honek antolakunde formalen sortzea ahalbidetzeaz gain (alderdi politikoak, sindikatuak, guraso-elkarteak etab.), edozein antolakunde mota baimentzen du (eztabaida-taldeak, dantza-taldeak, eskolako asanbladak etab.).

Mugei dagokionez, ordenamendu bermatzailea dugu kasu honetan. Konstituzioak, bere aldetik, bi muga ezartzen dizkio ahalmen honi; soilik helburu zilegiak bilatzen dituzten antolakundeak baimentzen dira, delituen sustapena dakarten elkarrekin debekatuz (antolakunde terroristak, kriminalak etab. kokatzen ditu hemen), eta bestetik, elkarte sekretuak eta paramilitarrak debekatzen dira.

Alarma-egoerak eskubide hau egikaritzea ezinezko bihurtu zuen. Aipatu bezala, zirkulazio askatasuna eta biltzeko eskubidea oso mugatuta

zeuden eta salbuespenetan ez zen aurreikusten arrazoi politikoetarako lekualdatzeko aukera, osasun-neurrien errespetua bermatuta egonda ere.

Honela, **asanbladen edo elkarten jarduera espazio birtualera mugatu zen**, antolakunde batean hain oinarrizkoak diren praktikak debekatuz (kaleko agitazioa, hausnarketa kolektiboetarako bilkurak, eduki politikoaren banaketa, etab) eta nabarmenki ahulduz herria indartzeko aukera oro. Hitz gutxitan, edukirik gabeko eskubideak zuzenean eskubidearen deuseztatzea ekartzen du, eta ezin dugu ahaztu, honek guztiak kontrol sozialerako erraztasunak eman zituela.

2.2.3. Manifestazio eskubidea

- [Lehen Alarma-Egoera](#)

Biltzeko eskubideak, bestalde, berebiziko garrantzia du jarduera politikorako. Aurretik azaldu bezalaxe, **konfinamenduak elkarretaratzeen guztizko debekua ekarri zuen, edozein manifestazio berarekin debekatuz**.

Debeku hau zegoen, baina, juridikoki zalantzarria zen. Ez dugu ahaztu behar alarma-egoerak ez dituela eskubideak eteten, eskubide horien egikaritzea mugatu baizik. Osasun-larrialdiaren testuinguruan, legegileak zein epailetzak bizitzaren eta elkartzeko eskubidearen arteko ponderazioa gauzatu zuen, bizitzeko eskubidea lehenetsiz. Arrazoiketa honen pean, manifestazio komunikazioak deuseztatu ziren, funtsean eskubide hau guztiz baliogabetuz (horren adibide dugu Maiatzak 1ko manifestazioa, eztabaida juridiko zail baten ondoren debekatua izan zena; Konstituzio Auzitegiaren apirilak 30eko 40/2020 autoak agindu bezala).

Izan ere, araudiak bi muga zehatz ezartzen dizkio manifestazio-eskubideari: ordena publikoaren asaldura eta pertsonen eta ondasunen ongizatea; honakoak arriskuan baleude debekua zilegia izango litzateke. Honela,

lehen alarma-egoeran zehar bizitzaren kontrako arriskua zegoela aitortuz, eskubide honen guztizko mugaketa egin zen.

- **Arintze-faseak eta Bigarren Alarma-Egoera**

Arintze faseetan aldiz, eskubide honen egikaritzea baimenduz joan zen osasun neurri zehatzak errespetatzen ziren heinean (kotxeen bidezko manifestazioak, distantziaren errespetua etab.). Autoritate polizial edo sanitarioek ez zuten zirkularrik edo deklaraziorik eman eskubide honen ber-egikaritzea baimenduz, baizik eta kolektibo edo antolakundeek, eginaren eginez, manifestatzeko eskubidea birbaliatu zuten.

- **Murrizketaren azterketa juridikoa**

Gizartearen jardunarekin lortu da manifestazio eskubidea berriz ere martxan jartzea. Horren adibide nabarmenak ditugu ekaina aldera azaleratu ziren lehenbiziko mobilizazioak: Zaldibarren kudeaketa salatzeako kontzentrazioak, Patxi Ruizen gose-greba babesteko elkarretaratzeak, manifestazioak etab. Baimenak lortzeko zailtasunen aurrean, antolakunde politikoek praktikaren bitartez berreskuratu zuten manifestatzeko-gaitasuna, osasun-neurriak uneoro aplikatuz eta polizien oldarraldiei muzin eginez.

Patxi Ruizen gose greba babesteko elkarretaratzea
(Iturria: Argia)



Izan ere, ugariak izan ziren kontzentrazio edo manifestazio hauengatik emandako isun-mehatxuak; indar polizialek modu zehaztugabe eta

ezberdinetan baimentzen zituzten manifestazioak, herri edo eskualdearen arabera hauek onartuz edo debekatuz. Modu berean, isun-prozedurak martxan jarri ziren mobilizazio legeetan, osasun-neurriak errespetatzen ez zirela argudiatuz.

Zehaztugabetasun hau argitzeko helburuarekin, **bigarren alarma-egoeran eskubide honen aldeko bermeak ezarri ziren**, manifestazio eskubidearen inguruko artikulua zehatza aurreikusiz (7.3 artikulua). Honen arabera, **manifestazioak mugatu, baldintzatu edo debekatu ahal izango dira, baldin eta sustatzaileek alde aurretik aurkeztutako jakinarazpenean ez badute bermatzen osasun neurriak errespetatuko direnak**.

Arrisku hori egon daitekeen jakiteko balorazio bat egin behar da, eta horrek arbitrariotasun-tarte bat sortzen du, agintariei kontrol-ahalmen handiagoa ematen diena. Honen adibide dugu Martxoak 8ren harira antolatutako zenbait manifestazioen debekuek sortutako eztabaida; izan ere aurretik egindako kontzentrazio zein manifestazioek ez zuten arriskurik suposatzen baina hauek bai, arrisku-baldintzen aldaketarik nabaritu ez arren.

2.2.4. Greba eskubidea

- **Lehen alarma-egoera**

Osasun-larrialdiarekin batera, Covid-19aren krisiak eragindako lan-ondorioek ez dute aurrekaririk. Langabetze eta lan-erregulazio espedienteen testuinguru honetan, langileon eskubide kolektibo garrantzitsuenetako baten beharra azaleratu zen, greba-eskubidearena.

Elkartze-eskubidearekin gertatu zen bezala **ez zen eskubide honen zuzeneko mugaketarik aurreikusi, praktikan indargabetu bazen ere**. Alarma-egoera deklarazioak ez zuen eskubide kolektibo honen eteteari buruzko aipamenik jasotzen, salbuespenezko egoera honen araudiak

ez baitu aurreikusten eskubide hau eteteko ahalmenik. Baina, esan bezala, **zirkulazio-askatasunaren edo biltzeko eskubidearen debekuak zuzenean eragin zion eskubide honen egikaritzari.**

Greba-egoeraren bat antolatzen zen bakoitzean, agintaritzaren eskudunak gutxieneko zerbitzu gisa 100% konbokatzen zuen osasun publikoko arrazoia zirela-eta; gutxieneko zerbitzu totala ezartzeak ondorioz gabe uzten zuen greba, oinarrizko eskubidea edukiz hustuz.

• Arintze-faseak eta Bigarren Alarma-Egoera

Arintze faseetan neurri eskubide guztien mugaketak arintzen hasi ziren, baina greba eskubidearekikoak, praktikan, berdin jarraitu zuten. Langileon grebak eragin zuzena zuen oinarrizko zerbitzuen egikaritzan eta hori arriskuan jartzen zuen greba oro aurrera eramatea ezinezkoa bihurtu zen. Gizartearen oinarrizko beharren horniketa eta osasun neurriak bermatu beharra izan zen eskubide hau bertan behera uzteko argudio nagusia. Egoerak berdin jarraitu zuen bigarren alarma-egoeran, intzidentzia tasa asko handitu zenez, horrelako eskubideen guztizko murrizketa ezarri zen gizarteari funtsean behar dituen baliabideak ahalbidetzeko.

• Murrizketaren azterketa juridikoa

Adibideak aztertuz, agerikoa da oso modu nagian ezartzen zirela gutxienezko zerbitzu minimoak. Esaterako, garbiketa-munduan eman diren greba saiakeretan %100ko zerbitzu minimoak ezarri dira, covid-aren aurrean higiena mantentzea ezinbestekoa dela argudiatuz (Santiagoko garbitzaileen greba, Prat aireportuko greba etab.).

Are gehiago, eskubide hau **oinarrizkoak ez diren zerbitzutara mugatu zen praktikan**. Martxoko alarma-egoera dekretuak funtsezko zerbitzuen kontzeptua nabarmenki zabaldu zuen, eta **lan hauek behar bezala funtzionatzeko beharrezko neurri guztiak hartu beharko zirela agindu zuen**. Xedapen zehatz honek funtsezko zerbitzuetan greba gauzatzeko

ahalmena guztiz deuseztatzen zuen, hauen funtzionamendu normala oztopatzen zuen edozein jardun debekatzen baitzuen.

Xedapen honen isla zerbitzu minimo totalak izan ziren, pixkanaka zabaltzen zihoan funtsezko zerbitzuen alor guztietan (osasun mundua, garraioa, supermerkatuak etab.). Honela, prekarietate eta babesgabezia handiena pairatzen ari zuten agenteek greba egiteko ezintasunarekin topo egin ziren, borroka tresna garrantzitsu bat baliogabetuz.

2.3. Lan arloko neurriak

Alarma-egoeraren deklarazioak jada kaltetua zegoen errealitate laborala larritu zuen; bai telelanaren ezarpenagatik bai produkzio mailan bizi izan ziren aldaketa handiengatik, legislazio laboral berria garatu behar izan zen. Araudi honek aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen irtenbidea indartu zuen (*ERTE* moduan ezagunak), lan modalitateak malgutu, eta laguntza zuzenak ezarri, besteak beste.

• Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (ABEEE edo ERTE delakoak)

Langileen Estatutuko 47. artikuluan jasotzen da figura juridiko hau eta askok alarma-egoerarekin batera etorri den neurria dela uste duten arren, ibilbide luzea duen figura dugu aldi baterako enplegu-erregulazioa. Honen bitartez, **lan kontratu bat aldi batez mugatu edo suspenditzeko erabakia hartzen da eta ez da langilea kanporatzen**, lanpostua mantenduko du lanik egiten ez badu ere.

Legeak justifikazio zehatzak ezartzen ditu lan-erregulazio hauek aurrera eraman ahal izateko. Batetik, arrazoi ekonomiko, produktibo, antolakuntzazkoak edo teknikoak egon beharra aurreikusten da edota, bestetik, osasun-krisian hain entzuna izan dugun ezinbesteko arrazoia

egon behar dira (gaztelera *causa de fuerza mayor*). Soilik egoera hauen aurrean mugatu edo suspenditu ahalko da lan-kontratua.

ABEEE aplikatzeko prozesu zehatza aurreikusten da. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileak eta Lan-Agintaritzak prozesuan parte hartzen dute, aipatutako arrazoi ekonomikoak edota ezinbesteko arrazoiak benetan dauden aztertuz eta ABEEE aplikatzeko baimena luzatuz.

Covid araudiak neurri hau ezartzeko erraztasunak bilatu zituen. Batetik, pandemiaren ondorioak ezinbesteko arrazoi moduan deklaratu zituen, osasun-larrialdiak enpresan eragindako kalteak frogatzearekin nahiko zelarik. Tramiteak azkartzeko asmoarekin, bestetik, autoritate publikoen esku-hartzea sinplifikatu eta epeak moztu zituen, prozesu osoa modu garrantzitsu batean laburtuz. Esaterako, hasiera batean lan agintaritzak modu automatikoan aitortu zituen ezinbesteko arrazoipean ematen ziren lan erregulazio-espeditu guztiak, Lan Ikuskaritzak ondoren hauek berrikusi eta behin betiko erabakia hartuko zuelarik.

Gainera, neurri hau sustatzeko asmoarekin, **Gobernuak ABEEE egoeran zeuden langileen kotizazioak ordaintzetik salbuetsi zituen enplegatzaileak.** Ildo beretik, arrazoi horrengatik langabezia-prestazioa kobratzen zuten langileek **ez zuten langabeziarik kontsumituko.**

Pandemiaren ondorioei aurre egiteko funtsezko neurri moduan sustatu du Gobernuak, hauen efektuak denboran nabarmenki luzatuz. Honela, arintze fase zein bigarren alarma-egoeran ABEEEen efektuak luzatzeko konpromisoa hartu zuten agente laboral zein enpresariak.

- [Langabezia prestazioa aldi baterako kontratua amaituz gero](#)

Jakin badakigu araudi laboralak kontratu prekarioen modelo finkatzen duela, aldi-baterako kontratuen markoa sustatzen baitu behin betiko kontratuen gainetik. Covid-19aren testuinguruan **behin-**

behinekotasunaren errealitateari aurre egiteko beharra azaleratu zen, gaur egungo lan merkatua izaera honetako kontratuek osatzen baitute bereziki.

Adibide moduan, **aldi baterako kontratuak iraungitzean langabezia prestazioa jasotzeko aukera zabaldu zuen Gobernuak, araudi normalean dauden ukanbeharrak erlaxatuz.** Honela, gutxienez bi hilabete iraundako kontratuetan sorospen hau jasotzeko aukera zabaldu zen beharrezko kotizaziorik ez izanda ere.

- [Kaleratzeak debekatuta koronabirusaren krisiak iraun bitartean](#)

Gobernuaren 9/2020 Dekretuak neurri aipagarri bat mahai gaineratu zuen, langileak kaleratzeko debekua. Honen arabera, **martxoaren 28tik alarma-egoera amaitu bitartean ezin ziren kaleratzeak eman osasun-krisiak sortutako ezinbesteko arrazoiak edo arrazoi ekonomiko, antolakuntzazkoak, tekniko edo produktiboak zirela medio.** Horrela, ez zen justifikatutzat joko langileak kaleratzea koronabirusagatik eratorritako arrazoiengatik, eta gertatuko balitz, **kaleratze hori bidegabetzat joko litzateke.** Urtarrilak 26an plazaratutako 2/2021 Errege Dekretuak lan-arloko neurrien zabalpena ekarri zuen berekin, aurretik hartutako neurriak denboran luzatuz.

- [Kontziliazioa bermatzeko lanaldia berrantolatze edo murrizteko eskubidea](#)

Zaintza lanak gauzatzeko orduan langileon askatasuna mugatua izan ohi da, lan-orduak aldatu eta egokitzeko tresna murriztu aurreikusten baititu araudi sozialak. Edonola ere, osasun-larrialdi testuinguruan zaintzen beharra orokortu zenez lan dekretuek egokitzapen hauek sustatzeko neurriak ezarri zituzten.

Honela, **ezkontideak, izatezko bikotekideak edota bigarren mailako odolokideak zaintzeko eginbeharrak betetzen zituztela egiaztatzen zuten**

langileek haien lanaldia berrantolatzeko edo murrizteko eskubidea zuten, telelanaren aukera ere mahaigaineratuz.

Bide honetan, distantzian egindako lana arautzen zuen 28/2020 Legea plazaratu zen osasun-krisi erdian; honakoan kontziliazioa errazteko tresnak ematen dira, telelanaren aukera indartuz.

- **Etxeko langileen ezohiko langabezia-sorospena**

Nabarmenezkoa dugu neurri hau, besteak beste, lehenengo aldiz etxeko langileen egoera prekarioari aurre egiteko asmoa erakutsi baitzuen. **Zuzeneko laguntza honen arabera, alarma-egoera deklaratu zen egunaren aurretik etxeko langileen erregimenean alta emanda zeuden etxeko langileei diru-laguntza bat emango zitzaien.**

Prozesu burokratiko konplexu honetan, etxeko langileek frogatu beharra zuten osasun-krisia zela eta kanporatuak izan zirela edota lan egiteko ezgaituak zeudela (gaixotasuna dela eta, konfinamendua dela eta ...). Aipagarria da sorospen hau soilik lehen alarma-egoeran eman zela (uztailak 21ean amaitu zen honen eskaera epea), beste neurri laborekin alderatuz **oso denbora gutxi indarrean egon zelarik**. Horrek, hala nola, ondorioak ekarri ditu eremu honetan lan egiten duten langile atzerritarrentzat (sektoreko ehuneko handi bat direlarik), baimenak eskatzeko eta berritzeko eskatzen zaizkien baldintzak zaildu egin baitira.

2.4. Etxebizitzaren eremuko neurriak

Aski ezaguna dugun moduan, osasun-krisiak gizartean jada errotuta zeuden errealitate sozioekonomiko prekarizatuak larriagotu zituen. Honen adibide argia dugu etxebizitza arloa; azken hamarkadan garestitutako oinarritzko eskubide honek atzerapauso nabaria eman zuen pandemiaren testuinguruan, fenomeno honi aurre egiteko neurri zehatzak hartu zirelarik.

Batetik, **alokairu-merkatua zaintzeko neurriak hartu ziren**. Oro har, sei hilabeteko luzapen automatikoa ezarri zen alarma-egoeran zehar ohiko etxebizitzaren alokairu-kontratuak amaitzen ziren kasuetarako; beti ere, alderdiek bestelakorik adostu ezean.

Gainera, etxebizitza-edukitzaile “handiek” (10 higiezin baino gehiago zituztenak) maizterrekin errentamendu-zorra geroratzeko edo bakartzeko akordioak bultzatu ziren; hala nola, alokairuaren %50eko kita onartzera (alarma-egoerak iraun bitartean, bai eta hurrengo 4 hilabetetan) eta alokairua ordaintzeko luzapen automatikoak ezartzera (gehienez ere 4 hilabetekoa, eta ordainketa hori hurrengo 3 urteetan berregituratuko da penalizaziorik eta interesik gabe). Bestetik, etxebizitza-edukitzaile “txikien” egoera zegoen (10 higiezin edo gutxiago zituztenak). Hauetan alokairua ordaintzea lehenetsi zen eta hori gauzatzeko maizter ahulenei bideratutako laguntzak sortu ziren, hala nola, estatuaren mikrokredituak (0 interes-tasan, 6-10 urtetan itzuli beharrekoak) eta bestelako zuzeneko laguntzak (gehienez 900€koa hilean, autonomia erkidegoek kudeatua).

Era berean, alarma-egoerak iraun bitartean ordaintzeko aparteko zailtasunak zituztenei **hipoteka-maileguen kuoten ordainketa atzeratzea erabaki zen** eta ezin zen ez interesik ezarri, ez zorra ordaintzera behartu ez eta atzeratze hori erabili hipoteka exekuzio bat martxan jartzeko.

Egoera guzti honek etxe-gabetzeen arazoa ere areagotu zuen. Horri lotuta, neurri berezi bat onartu zen, **etxegabetzeak 6 hilabetez eten ziren ahultasun ekonomikoko egoeran bizitako maizterrentzat**. Horretarako, egoeraren berri eman behar zen epaitegiari eta abiarazte-egintzaren (*lanzamiento* gaztelaniaz) edo hura erabakitzeke ikustaldiaren ezohiko etendura aitortzen zen; harik eta gizarte-zerbitzuek neurriak hartu arte (gehienez ere 6 hilabetez).

Noski, alokairuaz gain, egunerokotasunean etxebizitzan hainbat gastuei aurre egin behar zitzaien, eta askorentzat ezinezkoa zen fakturak

ordaintzea diru-sarrera gabe zeudelako. Horrela, kontsumitzaile kalteberei **ur-, elektrizitate- eta gas-hornidura etetea debekatu zen.**

Edonola ere, aipatutako neurriek ez zioten etxebizitzaren problematikari behar bezala erantzun. Etxebizitza-edukitzaileen baremo altuak (10 etxebizitzatik gorakoak ulertuko dira soilik edukitzaile handiak) babes gabe utzi zituen maizterren ehuneko altu bat, eta etxegabetze prozeduretan eragiteko zailtasun burokratikoek eskubide hauen erdiestea ia ezinezko bilakatu zuten. Funtsean, jabetza pribatuaren defentsan hartutako neurriak direla ikus daiteke, errentariaren etxebizitza-eskubidea eta errentatzailearen negozio pribatua egiteko eskubidea parekatzen zituzten, bien nolabaiteko elkarbizitza bilatuz baina atzetik sortutako krisiari erreparatu barik.



Etxegabetze baten kontrako kartelak (Iturria: Batu Elkarlaguntza Sarea)

Lehen alarma-egoerak egoera sozioekonomikoa indartsu kolpatu bazuen ere, ondorio larrienak honen amaieran etorri ziren; errenten ordaintze- ezak, kaleratze prozesuak eta bestelako etxebizitza problematikak nabarmenki azaleratzen hasi ziren, aurretik aipatutako neurriak denboran irauarazteko beharra mahaigaineratuz. Hasi batean bigarren alarma-egoeraren luzapenari lotu ziren neurri hauek, maiatzak 9 arte, zehazki,

baina kale mobilizazioak eta neurri hauen kontentzio gaitasun eskasa ikusirik hauek uda sasoiaren amaierara luzatzea erabaki zen. Honela, **etxegabetzeen debekuak, alokairu-kontratuen luzapenak, alokairu errenten moratoriak edota zuzeneko etxebizitza laguntzak 2021ko abuztuak 9 arte luzatu ziren.**

2.5. Eskumen-banaketa

Espainiar Estatuak sistema-autonomiko konplexua du, zeinetan eskumenak organismo lokal, probintzial, autonomiko eta estataletan banatzen diren. Banaketa honek hainbat logikari erantzun izan diote historian zehar, botere legegile zein betearazlearen titularitateak garrantzi politiko handia baitu; pandemiaren kudeaketan, nola ez, eskumenen problematika azaleratu zen.

Martxoak 14ko alarma-egoera dekretuak osasun-larrialdiari aurre egiteko beharrezkoak ziren eskumenen zentralizazio totala ezarri zuten. **Gobernu Zentrala bilakatu zen agintari eskuduna edozein ondorioetarako eta agintari delegatu gisa izendatu zituen Defentsako Ministroa, Barne Ministroa, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministroa eta Osasun Ministroa**, bakoitza bere erantzukizun eremuan. Ministroak aginduak, ebazpenak, xedapenak eta interpretaziorako jarraibideak emateko gaituak izan ziren. Edonola, agintari hauen aginduen esparruan beharrezkotzat jotako neurriak hartzeko eskumena zeukaten administrazioek.

Erabaki honek pandemiari aurre egiteko estrategiaren oinarri handi bat azaleratu zuen: eskumen kontzentrazioa. Honela, eskumen-sistema autonomikoa guztiz deuseztatu zen gauetik egunera, osasun-, garraio- eta segurtasun-eskumen autonomikoak guztiz baliogabetuz; zentralismoaren markotik abiatuta irizpide homogeenok ezarri ziren, eta tokian-tokiko errealitateak isilarazi ziren batasunaren izenean.

Arintze faseen garaian ezinegona azaleratu zen marko autonomikoetan, eta eskumenen ber-banatzeari ekin zitzaion. Lehen alarma-egoeraren amaieratik aurrera, **autonomia erkidegoek hartu zuten neurri mugatzaileak ezartzearen lekukoa**; beti ere Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Kontseiluaren eta Presidente Autonomikoen Kontseiluaren markoan, autonomia bakoitzak bere irizpide propioak diseinatu zituen haien errealitate konkretuei erantzuteko.

Uda sasoiari neurri mugatzaileak musukoen ezarpenean, hondartzen irekieran edo tabernen irekiera eta itxiera orduetan ezaugarritu ziren soilik. Ildo horretatik, neurri horien interpretazioa eta aplikazioa irizpide polizialen bidez ikusi izan dugu, hauen eskumen eremua nabarmenki zabalduz.

Kontrara, **bigarren alarma-egoerak** autonomiei luzatu zien pisuzko neurri mugatzaileen eskumena. Bigarren korpus juridiko honetan, ondorioz, **irizpide aniztasuna ugaritu zen**; modu irregular batean lurraldetik irteteko debekuak, herri konfinamenduak, etxeratze-aginduak edota ostalaritza mugak ezarri ziren. Aldaketa hauek askotan asteko iraupena izan ohi zuten, gaixotasunaren hedapenaren arabera, herritarron artean segurtasun juridiko eza zabalduz eta irizpideen nahasmena areagotuz.

Nolanahi ere, **zehaztekoa da Estatuak gainbegiraketa funtzio nabarmenak zituela erkidegoen jardunean, hauen erabaki-markoa zehaztuz**. Bigarren alarma dekretuak, esaterako, ordu langa zehatzak ezarri zituen etxeratze-agindua agintzeko (*toque de queda* delakoa), zeinen barruan autonomia bakoitzak erabaki zezakeen. Modu berean, erkidegoek ezin zuten konfinamendu totalik deklaratu Osasun Ministerio zentralaren baimenik gabe.

Hau argi ikusi da bigarren alarma egoera bukatu denean. Hain zuzen ere, autonomia erkidego bakoitzak bere lurralde esparruko osasun egoera aztertuta, hari lotutako neurriak hartzea erabaki du. Noski, autonomia

erkidego bakoitzeko intzidentzia tasa eta txertoak jaso dituzten herritarren kopurua desberdina denez, hartutako neurriak ere desberdinak dira. Adibidez, **autonomia erkidego gehienek etxeratze agindua bertan behera utzi dute, baina beste batzuek mantentzea lortu dute, hala nola, Balear irletan eta Valentzian**.

Aurretik aipatu dugun moduan, epaitegiek **ebazpen kontrajarriak eman dituzte alor honetan**, oinarritzko eskubideen mugaketei lotutako araudiak ematea autonomia erkidegoen eskumena ote den zalantzan jarritz. Azkenean, Auzitegi Gorenak argi utzi du **osasun autoritateak** halako eskumena dutela, eta ondorioz, osasun araudiaren babespean, **oinarritzko eskubideak mugatzen dituzten araudiak eman ditzakete** euren lurralde esparruan, beti ere **egokiak, beharrezkoak eta proportzionalak izatekotan**.



3

ERREPRESIOAREN ANALISI OROKORRA

Gida honen hasieran aipatu dugun bezala, errepresioaren marko teorikoa aztertzea ezinbestekoa da estatuak ezarritako eskubideen murrizketak ulertu ahal izateko. Horretarako legea instrumentu errepresibo gisa ulertu beharra dugu, boteredunen behar politiko zein ekonomikoak asetze aldera garatzen dioana, hain zuzen ere.

Osasun krisi honen aurrean pedagogia, elkartasuna eta kolektiboaren garrantzia garatu ordez, estatuaren indarkeriaren logika gailendu da eta horrek begibistan uzten du gizartea babesteko asmo eza. Historiak erakutsi digun moduan sistema kapitalistaren *status quo*a babestea dute helburu bakarra, salbuespeneko legediari edo legearen interpretazio zabalei bidea emanaz errepresioa burutu ahal izateko. Alarma egoeran helburu horiek ez direla aldatu argi dugu eta jarraian horren adierazleak aipatuko ditugu.

3.1. Errepresio legediaren ibilbidea

Max Weberren hitzetan, “Estatua giza komunitate bat da, zeina, lurralde jakin baten barruan, beretzat eskatzen duen indarkeria fisiko legitimoaren monopolioa”. Hala, bere aburuz “estatua da indarkeria erabiltzeko eskubidearen iturri bakarra”. Bide horretatik, Estatuak zuzenbidearen bidez arautuko du indarkeria hori. Beste era batera esanda, **Estatuak zuzenbidearen bidez aplikatzen du bere indarkeria, zigortzeko duen eskubide eksklusiboa erabiliz, dena, *ius puniendi* delakoaren babespean.**

Hala ere, zigortzeko ahalmenaren monopolioa bi adierazpenetan banatzen da: Administrazioaren zehatzeko ahala eta epaile eta auzitegien ahalmen penala. Hori dela eta, nahiz eta bi kasuetan **Estatuak ezartzen duen zigorra, zuzenbideko bi adar ezberdin erabiltzen ditu** horretarako. **Adar horiek Administrazio Zuzenbide Zehatzailea eta Zigor Zuzenbidea dira.**

Esan dezakegu bai egungo Zigor Zuzenbidea, bai Administrazio Zuzenbide Zehatzailea, eta zehatzago, Mozal Legea, **Etsaiaren Zuzenbide Penala edo Jakobs Doktrina** izenez ezagutzen den filosofian oinarrituta daudela.

Herritarraren Zuzenbide Penalean (Zuzenbide penal erkidean), zigorraren ageriko funtzioa zuzenbide-estatuaren printzipioei dagokiena da; alegia, birgizarteratzea, gizarte-zehapena eta ohartarazpena. Etsaiaren Zuzenbide Penalaren helburua aldiz, arriskua ezabatzea da. Estatuaren interesen aurkako jokabideak sustatzen dituen pertsonari ez zaizkio berme juridiko edo prozesalik aitortzen; ezin da herritar gisa tratatu, etsai gisa tratatu behar da eta hari aurre egin behar zaio.

Bide horretatik, **Etsaiaren Zuzenbide Penalaren ezaugarriak hauek dira:**

- Etorkizuneko ekintzak zigortzen dira, oraindik egin edo gauzatu gabeak; askotan, asmoa da zigortzen dena.
- Zehapen prozedura orotan dauden bermeak desagertu egiten dira; edo guztiz desagertu ez arren, murrizketa larria dago horietan.
- Aurreikusitako zigorrak oso handiak dira.
- Disidentziak une eta testuinguru bakoitzean hartzen dituen forma eta dinamikei egokitzen da.

Doktrina honen ezarpenak ibilbide nabaria izan du Espainiar politika errepresiboan, bereziki alor antiterroristan aplikatu delarik. Honen adibide argia dugu “salbuespenezko legedia” delakoa, zeinen bitartez ekintza politikoa

batzuetatik haratago ideologia zehatz baten inguruan mugitzen ziren agente politiko guztien aurka aplikatu zen. Honela, botere judizial osoak etsai honen aurkako jarrera argia hartzen du: legediak berak salbuespen prozesalak aurreikusten ditu terrorismo kasuetarako (inkomunikazioak, defentsa-eskubide urraketak, dispersioa etab.), legegileak terrorismoaren kontzeptua nabarmen zabaltzen du aplikazio-eremu errepresiboan zabaltzeko (esaterako, Altsasuko auzia edota 18/98 makro-sumarioa) eta epaileek legedia hau bermerik gabe eta zentzu ideologiko argiarekin aplikatzen dute. Prozesu hauek dakarten ondorio kaltegarri eta larriak direla eta, **eremu-penalak “proportzio handiko errepresioa” ezartzen duela esan dezakegu.**



Etsaiaren Zuzenbidearen adibide izandako 18-98 makrosumarioaren aurkako agerraldia (Iturria: Joxemi Zumalabe)

Hala ere, “neurri txikiko errepresioa” ere azpimarratu behar da, **administrazio zuzenbide zehatzailea alegia.** Adierazi dugun moduan, zuzenbideko adar hau ere erabiltzen da zigortzeko ahalmena egikartzeko eta **Mozal Legea da errepresioaren adierazlerik nagusia** eremu honetan.

Doktrinanez **tabaida sortu izanda Zigor Zuzenbidearen eta Administrazio Zuzenbide Zehatzailaren artean dauden desberdintasunak finkatzerako orduan**, bakoitza arautzen duten printzipioak argitzea eta zehapenak aplikatzeko erabiltzen dituzten argudioak sailkatzea konplexua baita.

Hau horrela izanik, doktrinaren zati batek dio bion desberdintasuna kualitatiboa edo funtsezkoa dela, bakoitzak gauza desberdinak babesten dituela diote, eta hori dela eta, zehapenen helburuak ere bat ez datozela argudiatzen dute. Beste batzuen ustez, desberdintasuna kuantitatiboa da. Hau da, bi alor juridiko horiek alderatzeko, bakoitzak aurreikusten dituen jokabide eta zehapenen larritasuna aztertu behar da.

Desberdintasun kuantitatibo edo formalari erreferentzia egiten diotenen ildotik jotzen dugu guk. **Abiapuntutzat jotzen dugu *ius puniendi* bakarra eta eskusiboa estatuarena dela, eta, beraz, haren bi adierazpenek funtzio eta helburu berak dituzte: zigor bat ezartzea.** Are gehiago, bi arlotan zigortzen diren jokabideak berdinak dira, eta horregatik, askotan gainjartzen dira. Horrela, bien artean egon litekeen diferentzia kuantitatibo bakarra ezartzen dituzten zehapenetan dago, salbu eta bi arauak isuna ezartzen dutenean, izan ere kasu horietan Administrazio Zuzenbidearen erantzuna Zuzenbide Penalarena baino larriagoa izan ohi da.

Baina zerk bultzatzen du portaera bat tresna bat edo bestearen bidez erreprimitzea? Guztia estatuaren legegintza-besoaren esku geratzen dela, zeinak, arbitrarioki, zigor zuzenbidearen bidez edo administrazio-zuzenbidearen bidez zigortzen den erabakitzen duen.

Hala, azken baieztapen hori kontuan hartuta eta azken garaietako testuinguru soziopolitiko kontuan hartuta (Ongizatearen Estatuaren krisia eta “arriskuaren demokratizazioa” sortzea ezaugarri dituen), **zenbait portaeraren despenalizazioaren arrazoiak baloratzen hasi behar dugu. Portaera horiek zigor zuzenbidearen aplikaziotik at gelditu arren, administrazio zuzenbidera jo da erantzun bat emateko. Bide horretatik sortu zen hain ezaguna dugun Mozal Legea.**

Aurretik zegoen legeak, Herritarren Segurtasuna Babesteko otsailaren 21eko 1/92 Lege Organikoa, Corcuera Legea edo atean ostikatzeko Legea izenez ere ezaguna zenak (FSEei alde aurreko baimen judizialik gabe etxebizitza batean sartzeko ematen zitzaizen eskumenari eginez erreferentzia), bere Zioen Azalpenean hauxe esaten zuen: zerbitzu publikoen funtzionamenduan eta herritarren bizitzan ondorio larriak dituzten mehatxuak, hertsapenak edo indarkeriazko ekintzak agertzera behartzen duten fenomeno kolektiboak aintzat hartzeak, era berean, fenomeno horien izaerari egokitutako eta Konstituzioaren eskakizunetara egokitutako tratamendua behar izatea dakar.

Bertan, segurtasun publikoa bezain kontzeptu abstraktu eta gaiztoa aipatzen zen, gero eta espazio eta esparru gehiagotan indar publikoaren erabilera justifikatzeko, eta, ondorioz, polizia-zigorgabetasuneko espazio handiak ekarri zituen. Isunak, polizia-adierazpenetan soilik oinarritutako administrazio-espeditente zigortzaileak, polizia-funtzioetan gehiegikeriak etab. horren lekuko dira. Espiritu hori bera mantentzen da horren inguruan garatu diren hurrengo legedian.

Hala, esan bezala, **Mozal Legearekin, beste urrats bat egin da zehapenezuzenbidearen adar horren bilakaeran**, uneko eskakizunetara egokituz. Legeak Jakobs doktrinaren oinarriak ditu, eta inolako beldurrik gabe esan dezakegu etsaiaren Zuzenbideari bete-betean erantzuten diola.

3.2. Alarma-egoeran aplikatutako araudi errepresiboaren segurtasun juridikorik eza

Lehenik eta behin, **Segurtasun Juridikoaren Printzipioa** daukagu. Printzipio hori legea objektiboki aplikatzeko oinarria da, herritarrek uneoro jakin dezaten zein diren beren eskubideak eta betebeharrak, eta ondorioz, agintarien apetak, baldarkeriak eta borondate txarrak ez dezaten kalterik eragin. Bestela esanda, **estatuaren botere publikoa legeria argi eta erraz baten bidez mugatzeko oinarria da.**

Herritarren eskubideengan murriztapenak ezarri izanik, murriztapen horien ez betetzeen aurrean egin beharrekoa zehaztea eskatzen zuen. Azaldutako araudi nagi eta aldakorak nahasmena ekarri zuen jendearen egunerokotasunean eta askotan zaila zen jakitea zer egiteko eskubidea zenuen egun bakoitzean. Edonola, araudia hertsiki betetzeko helburuarekin, arau hausteei lotutako erregimen bat finkatu behar zen.

Hasteko, argi izan behar da estatuko segurtasun indar eta kidegoak, autonomia erkidegoetako polizia kidegoak eta toki korporazioetakoak

Barne ministroaren agindupean geldituko zirela. Era berean, agintaritza agenteei espresuki aurreikusi zitzaien pertsona, ondasun, ibilgailu, lokal eta establezimenduetan egiaztapenak egiteko aukera, errege-dekretuaren ondorioz bertan behera utzitako zerbitzuak eta jarduerak gauzatzea eragozteko helburuarekin. Horretarako, beharrezkotzat jotzen zituzten agindu eta debekuak eman zitzaizketen, bai eta herritarrek burutzen ari ziren jarduera edo zerbitzuak bertan behera uztera behartu.

Gainera, dekretuko edozein neurri betearazteko arazo edo zalantzarik izatean, armadaren parte hartzea eskatu zitekeen. Horrela, errege dekretuko funtzioak betetzeko Indar Armatueta kideak agintaritzaren agente zirela adierazi zen, eta bidea ireki zitzaion hauen presentziaren normalizazioari: jarduera zibilak gauzatu zituzten (kaleen garbiketa, ospitale iragankorrak eraiki etab.) eta ohikoa bihurtu zen prentsaurreko ofizialetan haien parte-hartzea.



Militarren presentzia, Gipuzkoa eta Lapurdi arteko mugan
(Iturria: Jagoba Manterola – Foku)

Ildo berean, alarma-egoeraren bueltan ezarri ziren neurrien ezinbesteko sostengu gisa ezarri ziren segurtasun-indarrak, berme juridiko oso susmagarriekin. Xedapen zehaztugabe eta nagiekin poliziaren autoritatea indartu zen, agente bakoitzaren irizpideen eskutan utziz errepresioaren irismena eta larritasuna. Honek irudi kezagarriak plazaratu zituen, hala nola, Bilboko San Frantzisko auzoan adingabe batekiko eta haren amarekiko jarrera oldarkorra edo Irunen atzerritarrekin gertaturiko gehiegikeriak. Aipatzekoa da atzerritarrekiko sortu den baztertzea izugarri

zabalduta dela eta horrek bide eman duela hauekiko trataera okerrera joan izana, bai eremu juridikoan zailtasunak ezarri baimenak lortzeko, bai gizartearen jarrera arrazisten ugaritzea eman delarik.

Azaldutakoari jarraiki, **alarma-egoera aitortu zuen dekretuak aurreikusten duen zehapen araubideari** egin behar zaio erreferentzia, edo hobe esanda, dekretuak aurreikusten ez duen araubideari. Hain zuzen ere, dekretuak ez du zehapen araubide zehatzik aurreikusten eta alarma-, salbuespen- eta setio-egoerei buruzko ekainaren 1eko 4/1981 Lege Organikora egiten da bidalpena. Aipatu behar dugu bertako artikuluek ere ez dutela zehapenen araubiderik jasotzen, soilik adierazten da alarma egoeran eskuduna den autoritateak emandako aginduak ez betetzea edo haiei aurka egitea zehatua izango dela **momentuan indarrean dagoen legean aurreikusitakoaren arabera** (10. artikulua).

Aurrekoa ikusirik, segurtasun juridikoaren printzipioa ezerezean gelditzen da. Zein dira zigor- edo zehapen-lege aplikagarriak? Zein dira agintaritza eskudunaren aginduak, errege dekretuan ezarritako murrizketak edo beste edozein agindu? Zer kalifikazio eta zehapen mota ekarriko dituzte ez-betetze horiek? Penalak? Administratiboak?

Galdera horien erantzunak estatuko segurtasun-indarrak martxan jartzearekin batera erantzun ziren arren, alarma egoerako dekretuaren artikulua egiten duen igorpen generikoak arazo praktikoak sortzen ditu poliziak salatutako arau-hausteak tipifikatzeko orduan.

Izan ere, errege dekretuak ez du ezartzen dituen mugak eta debekuak betetzea babesten duen zehapen-erregimenik, ez eta hori aplikatzeko eman diren ministro-aginduak ere. Ez du ezer arau-hauste gisa tipifikatzen eta ez du inolako zehapenik aurreikusten, egin zezakeen arren, eta ondorioz, Segurtasun Juridikoaren Printzipioa guztiz mugatuta utzi da. **Horrek, zalantzarik gabe, bidegabekeria eta zigorgabetasun handiagoa ekarri du polizia-jardueretan, eta lege lausoa eta herritarren nahasmena baliatu dira errepresioa egiteko.**

Horrela, Zuzenbide Estatuaren oinarritzko berme eta printzipioen gainetik pasatu da, eta agintariak, askotan, herri-klaseen aurrean goretzi dute sistema errepresiboa, gure eskaera eta aldarrikapenen aurkako euste-horma gisa. Izan ere, segurtasun juridikorik eza, legearen interpretazio estentsiboak, polizia-arbitrariotasuna eta defentsa-eskubideen mugak oso koktel arriskutsua dira; guztia, ez dezagun ahaztu, “osasun publikoaren” izenean erabiltzen delarik.

3.3. Errepresio mekanismo nagusia: Agintea ez obeditzea

Arau hausteen aurrean aplikatu diren lege nagusien artean, Herritarren Segurtasuna Babesteko 4/2015 Lege Organikoa nabarmentzen dugu (Mozal Legea), hura izan baita Estatuaren indar errepresiboen salbatzaile nagusia errege-dekretuko ez-betetzeak zehatzeko.

Mozal Legearen 36.6 artikulua autoritateari desobeditzea arau-hauste larritzat jotzen du (601 eurotik 30.000 eurora bitarteko isuna ezarriz), eta horixe izan da mekanismo nagusia alarma-egoera dekretuak ezarritako mugen ez-betetzeak zigortzeko. Zehazki artikulua aplikatzeko erabili den oinarria Barne Ministerioaren INT/226/2020 Agindua izan da. Agindu horren arabera, aipatutako artikulua ematen dio legezko estaldura alarma egoera dekretuaren arau hausteei, nahiko modu orokorrean eta justifikazio gehiegirik gabe egiten den arren.

Jurisprudentziaren arabera aldiz, gertaera jakin bat Mozal Legearen 36.6 artikuluko agintearikiko desobedientzia gisa kalifikatu ahal izateko, beharrezkoa da “jokabide pasiboa, erreaktiboa, agintaritzaren edo agentearen ordenari kontrajarria izatea. Nolanahi ere, desobeditutako mandatuak objektiboki eta subjektiboki zehatza izan behar du. Objektiboki, **mandatu jakin batean arau orokorraren aurreikuspena zehaztuko duen egintza bat egon behar da**. Subjektiboki, **pertsona jakin bati (jokabidearen autoreari)**

zuzendutako agintaritzaren edo haren agenteen ekintza bat egon behar da” (Auzitegi Gorenaren 45/2016 Epaia, otsailaren 3koa).

Hala interpretatu izan da orain arte aipatutako arau haustea, baita Barne Ministerioak berak ere, hala nola, urriak 17ko 13/2018 Jarraibidean, Estatuko Segurtasun Idazkaritzarena, kanpoko gorputz-erregistroen praktikari, arau-hauste batzuen interpretazioari eta LOPSC (Mozal Legea) delakoarekin lotutako prozedura-gaiei buruzkoa.

Jarraibideak dioten moduan, “agintaritzarekiko edo agintaritzaren agenteekiko desobedientzia eta erresistentzia kontzeptuak, inplizituki edo berariaz legezko agindu bat betetzeari uko egiteari egiten dio erreferentzia, eta, horretarako, agintaritzaren edo bere agenteen eskumenen erabileraren aurrean, pertsonak indar fisikoa edo gorputzarekin nolabaiteko oposizioa egitea eskatzen da. Beraz, **lehen abisuan edo modu arinean agenteek emandako aginduak edo jarraibideak betetzeari uko egiteak ezin du 36.6 artikulua arau-haustea suposatu**; hura aplikatzeko beharrezkoa baita agenteek euren funtzioak egikaritzea edo emandako agindua betetzea galarazten duen jarduera bat egitea norbanakoak”.

Hala ere, errealitateak erakutsi digunez, polizia herriarrei isun proposamenak ezarri dizkie, bai aurrez agindurik eman gabe, bai horiek betetzeari berariaz uko egiten ez diotenean. Horren ondorioz, estatuko errepresio-indarrek legezketasun printzipioa urratzen dute, horrek esan nahi baitu **ezin dela inor zigortu dagokion arau penalean, kasu honetan, zehapen arauan, argi eta garbi azaltzen ez den jokabide batengatik**.

Alarma-egoeran ezarritako murrizketak ez betetze hutsa ezin da automatikoki kalifikatu Mozal Legeko 36.6 artikuluko arau hauste bezala. Arau-hauste hori gertatzen da pertsona batek alarma-egoeraren mugak ez betetzeaz gain, agintaritzaren agente batek araua betetzeko eskatzen dionean eta pertsona horrek errekerimendu horri jaramonik egiten ez dionean. Ezin da desobedientzia gisa onartu arau baten agindu abstraktuari (alarma-egoeraren dekretuak emandakoari) jaramonik ez egitea. Izan ere, kasu horretan,

zentzugarabekeria bat aurkituko genuke: arauak ez betetzea desobedientzia izango litzateke, arau partikularrean arauturiko arau-haustez gain.

Edonola, egon dira epaiak kontrako argudioekin. Hau da, alarma-egoera dekretuak edo agintari eskudun delegatuak hartutako arau eta neurrietan xedatutakoaren aurkako jokaerek agintaritzari desobeditzea zekartela zioten epaiak eman dira. Bide hortatik, euren aburuz ez da beharrezkoa arau-hauste administratiboa egiteko agente batek alde zuzenetik errekerimendua egitea. Argumentazio honen oinarri erabili zuten ere 2020ko apirilak 14ko Barne Ministerioaren jakinarazpena.

Beste alde batetik, kontuan hartu behar dugu ere segurtasun-ingar eta -kidegoek duten zigorgabetasun eremua baliatuz, **Zigor Kodea aplikatu dela hainbat kasutan**; eta hori dela eta, desobedientzia larriko delituak, agintearekiko erresistentziak eta agintaritzaren aurkako atentatu-delituak egotzi dira, besteak beste.

3.4. Administrazio-prozedura zehatzailea: Bermerik eta irteerarik gabeko kale bat.

Aipatu dugu Mozal Legean jasotako “agintaritzaren aurkako desobedientzia” arau haustea dela alarma-egoera deklaratzeko duen Errege Dekretuaren ez-betetzeak zigortzeko mekanismo nagusia, eta, beraz, **zehapenek administrazio-prozedura zehatzailearen bidez gauzatu behar izan dute** nahitaez.

Gogora dezagun prozedura honetan **errepresio-eraginkortasunak arrakasta izateko aukera handiagoa** duela; hain zuzen, prozedura penala baino berme gutxiagorekin bideratzen da (ahal bada). Berme faltaren adierazle dira zehapen prozeduraren ondorengo ezaugarriak:

- Administrazio-prozedura zehatzailean, prozedura judicial batean ez bezala, **Administrazioa epaile eta alderdi (akusatzaile) da**. Hau da,

zehapenerako proposatutako gertaerak epaitzeko inpartzialtasuna oso txikia da edo zuzenean, ez dago inpartzialtasunik: Administrazioak proposatzen du zigorra (bere agenteen bidez), gertaerak ikertzen ditu eta dagokion zehapenari buruzko erabakia hartzen du.

- **Prozedura honetan alegazioak eta probak aurkezteko epeak oso laburrak dira** (jakinarazten denetik 15 egun baliadun) prozedura penalarekin alderatuta. Horrek, konfinamendu-garaietan nabarmen eragin dio defentsa-eskubideari. Gogora dezagun alarma-egoeraren dekretuak administrazio-epaiek geldiarazi zituen arren, ikusi genuela administrazio-prozedura zehatzaileak arazorik gabe bideratzen ari zirela. Denak beren etxeetan sartuta geundenez, juridikoki egoki aholkatzeko aukerak mugatuta zeuden (abokatu batengana zuzenean joateko ezintasuna, telefono bidezko aholkularitzarekin konformatzea etab.). Zer esanik ez zehapen proposamenak zer zioen jakiteko euskara edo gaztelania hainbeste menderatzen ez duten pertsonen zailtasunen inguruan.
- Administrazio-prozedura zehatzailean **agintaritzaren agenteen egiazkotasun-presuntzioa dago** (printzipio honek ez du jarduten prozedura penalean). Horren bidez, polizia eskaintako lekukotzak herritarrenak baino balio handiagoa du. Horrela, muturreraino murrizten da pertsonen beren burua defendatzeko duten aukera, eta ez da aski lekukotza-probak egitea. Horrek aurrez aurre talka egiten du errugabetasun-presuntzioaren printzipioarekin (errugabeak gara, kontrakoa frogatu arte) eta berdintasun-printzipioarekin (bi pertsona berdinen testigantza balio bera du), hauek nazioarteko, eskualdeko eta estatuko araudian jasotako oinarriko eskubideak direlarik.

Inguruabar horiek ikusita, askotan gomendagarriagoa da administrazio prozeduran ez jardutea eta zuzenean auzibidera jotzea. Ildo horretatik, zenbait epaitegitan alarma-egoerari lotuta ezarritako isunak baliogabetzen dituzten hainbat epai eman dira, jurisprudentzia kontrajarria izan arren estatu maila osoan.

3.5. Aholku juridikoak erreprezioaren aurrean

Ezar diezazkiguketan zehapenak ez direnez hutsalak eta atxiloketak ere eman daitezkeela kontutan izanda, aholku batzuk zerrendatuko ditugu.

1.- Hobe da zigorra saihestea errekurtoa jartzea baino

Agian ez da beharrezkoa esatea, baina zigorrik ez jasotzen saiatzea da estrategiarik onena. Aipatu dugun moduan, administrazio-legeriaren arabera agintaritzaren agenteek egiazkotasun presuntzioa dute. Hau da, administrazio-egintza guztiak egiazkoak direla uste da, eta haien hitza nahikoa da herritarraren errugabetasun-presuntzioari aurre eginez dagokion zehapena jartzeko.

Bestela esanda, zehapen prozedura administratibo baten esparruan, polizia batek X egin duzula esaten badu, benetan X egin duzula uste da, eta horri kontra egitea nahiko zaila izaten da. Horregatik, jarraibide edo irizpide subjektibo soiletan oinarritutako agindua ematen badizute, nahiz eta legezatasun zalantzak izan, gomendioa da ahala jardutea; beti ere oinarritzko interes edo eskubideentzat kaltegarria ez izatekotan edo legez kanpokoa ez izatekotan. Horrela, ez da ondorio juridikorik pairatuko.

2.- Saia zaitez frogak izaten, badaezpada

Aurreko aholkuak huts egiten badu, zigor proposamena ezar daiteke edo atxiloketa eman daiteke. Orduan, norbanakoak frogatu beharko du ez duela legez kanpoko ezer egin eta agenteek salaketan adierazten dutena ez datorrela bat errealitatearekin. Ez da erraza, baina ezinezkoa ere ez.

Norberak bere kontrako zehapen-espeditente bat hasteko aukera asko daudela uste badu, etxetik ateratzean sakelari audioa grabatzen duen gailuren bat martxan eraman dezake, adibidez. Ez da gomendagarria poliziarekin hitz egiten hastean egoera grabatzeko keinua egitea; izan ere,

legezkoa izan arren, poliziak norbanakoaren aurka jartzeko aukera gehiago izango ditu. Baina noski, kontuan izan behar da polizien egiazkotasun-presuntzioa atzera botatzeko erabil daitezkeela grabazioak edo bideoak.

Kontuz jardun behar da, leku pribatuetan norberak parte hartzen duen elkarrizketa grabatzea ez da berez legez kanpokoa, baina bai hirugarren batek parte hartzen badu bertan. Aldiz, eremu publikoan gertatzen dena grabatu daiteke, grabazio-gailu iraunkor bat edo bidezaintzako kamera bat jartzen ez den bitartean. Poliziarekin elkarrizketa bat grabatzen bada eta hura erabiltzen bada zehapen-prozedura edo prozedura judicial batean norbanakoaren defentsa-eskubidea erabiltzeko, grabazioa bidezkoa da, defentsa eskubidean babestuta egonik. Informatzeko eskubideak ere poliziaren irudiak zabaltzea babesten du.



Grabatzea ez da delitua” kanpainaren irudia, kazetari batzuei ezarritako Mozal Legearen harira (Iturria: Hala Bedi)

Arazoa ekar dezake ordea, grabazioari ematen zaion erabilerak. Kontuz jardun behar da, agenteen irudiak grabatzea eta zabaltzea legez kontrako jokabidea da, haien osotasun fisikoa edo morala arriskuan jartzekotan, eta ondorioz, 30.000 euro arteko isunekin zehatu daiteke Mozal Legeak dioen moduan.

Gomendagarria da ere GPS aplikazioak erabiltzea, mugikorra daraman pertsonaren mugimenduak une oro arakatzeko aukera ematen dizutenak alegia. Izan ere, horrela norbanakoak egindako ibilbide zehatza frogatu daiteke, adibidez, etxebizitzatik baimendutako distantzia batean ibili garela frogatu daiteke. Oro har, ez gara bizitza geolokalizatzearen aldekoak, baina salbuespen-egoera honetan erabilgarria izan daiteke.

3.- Defendatu juridikoki

Pertsona baten kontrako zehapen espediente bat hasten bada, eskubidea dago deskargu-alegazioak aurkezteko eta lekukotza, agiri edo edozein motatako frogak aurkezteko. Alegazioak aurkeztu arren, espediente zehapenarekin amaitzen bada, aukera dago epaitegian errekurtsua jartzeko. Alegazioak edonork egin ditzake, hirugarrenen laguntzarik gabe, hain zuzen hainbat formulario daude interneten horretarako. Adibidez, Legal Soleko lankideek duela urte batzuk “Buroresistiendo” izeneko eskuliburua argitaratu zuten, oso baliagarria zehapen-prozedurei aurre egiteko¹. Edonola, abokatu batengana jo dezakezu aholkatu, lagundu eta idatziak egiteko.

Hala ere, aurretik azaldu bezala, ez dugu gomendatzen prozedura administratiboan parte hartzea, defendatzeko bermeak oso urriak baitira. Hortaz, prozedura administratiboak aukera ematen duen “prontopago”-a egitea eta zuzenean bide judizialera jotzea gomendatzen dugu. Prozedura judizialean poliziek ez dute egiazkotasun presuntziorik, frogak aurkezteko aukera gehiago egon ohi dira eta epaituko duen subjektua ez da administrazioa bera izango, epailea baizik. Esan beharra dago prozedura judiziala hasteko derrigorrezkoa dela abokatu bat kontratatzea eta ematen den epaiak gure errekurtsua ezesten badu, prozedurako kostuak ordaindu beharko ditugu (administrazioaren abokatuaren ordainsaria).

4.- Zer egin atxiloketa baten aurrean?

Lehenik eta behin, jakin behar da atxilotuak izatekotan poliziek delitu bat egiten harrapatu gaituztela edo delitu hori burutzeko intentzioak zeudela ikusi dutela. Hau da, atxiloketarik gertatzen bada ez da Mozal Legea aplikatuko, delitu bat egotziko da eta Zigor Kodea aplikatuko da.

Gehienez ere 72 ordu egon gaitezke atxilotuak. Denbora hori bukatzean epailearen aurrera eraman behar gaituzte edo aske utzi behar gaituzte. Atxiloketaren iraupena ez da zertan 72 ordukoa izan behar, epe hori gainditu aurretik ohiko tramiteak egitekotan atxilotua aske utzi behar da, ezean, legez kontrako atxiloketa izango litzatekeelako.

Poliziak atxilotuak gaudela esan beharko digu, atxiloketaren zergatia eta gure eskubideen zerrenda aipatuz, atxilotuaren eskubidea baita informazio guzti hori jasotzea. Ez badigute hau guztia ondo azaltzen legez kontrako atxiloketa bat dela argudiatu dezakegu.

Komisaldegiko deklarazioari dagokionez, hasiera batean ez deklaratzeko gomendatzen genuen (hau da, ez deklaratu eta aske gertatuko gara epailearen zitazioaren esperoan), baina poliziaren jokabidea ikusita gomendagarriagoa da deklaratzeko dugula esatea; hain zuzen ere, inpunitate eremu bat sortzen da komisaldegi barruan deklarazioari uko egiten diogunetik aske uzten diguten arte, tratu txarrak adibidez.

Beraz, deklaratzeko dugula esatean abokatu baten izena eskatuko digute. Ez badugu inor ezagutzen, ofiziozko txandatik dagokion abokatua deituko dute. Abokatua komisaldegian aurkeztean elkarrizketa erreserbatu bat izateko eskubidea dugu, nahiz eta gehienetan poliziak ez utzi edo hura bera oztopatu. Poliziaren aurrean deklaratzeko orduan, abokatua ondoan izanda, ez dugula deklaratzeko esango dugu eta hortik gutxira aske geratuko gara seguruenik, baina horrela, abokatu bat ondoan izango dugu eta arazo edo ezustekoak gestionatzea errazagoa izango da.

Bukatzeko, poliziek eskaintzen duten edozer gauzari (janaria, edaria, etab.), uko egitea gomendatzen da, pertsonaren ADN-a eskuratu eta haien datu baseetan txertatu dezaketelako. Printzipioz indarkeria erabili dezakete gure ADN-a eskuratzeko, baina delitu larri baten aurrean gaudenean soilik. Gainontzeko kasu guztietan gure baimena behar da horrelako probak eskuratzeko.

¹ “Buroresistiendo” gida hemen aurkitu daiteke:
<https://manualsancionesadministrativas.wordpress.com/>



4

ONDORIOAK

- | -

Koronabirusak kapitalismoaren krisia nabarmenagoa bihurtu du. Honek, jakina, eragin zuzena du langilegoarengan: ERTEak, enpresen deslokalizazioa, telelanaren areagotzea, zaintza lanen prekarizazio sakonagoa, gazteen langabeziaren areagotzea, pentsioak arriskuan jartzea, eta gero eta erosteko ahalmen baxuagoarekin. Egoera honetan hartutako aparteko beste neurriek ere eragin zuzena izan dute herri langilearen egoera larritzean; hala nola, argi indarraren garestitzea, etxebizitzarako aukera geroz eta zailagoak, hauen garestitzearen ondorioz, genero indarkeria, homofobia, lesbofobia, transfobia eta arrazismoaren hedapena. Ezin elementu hauek guztiak ulertu kapitalismoaren logikaren baitan ez bada.

Talka sozialaren atarian gaude eta ordenaren beharra du estatuak kapitalismoaren oinarriak zalantzan jarriko dituen leherketa ekiditeko. Covid19aren aurrean garatutako legedian, ikuspegi sekurokrata ikuspegi pedagogiko edo kritiko hutsaren gaintik jarri da, ordena; eta beldurraren hedatzea izan da honetarako tresna. Lehenengo neurria, kapitalaren eta merkatuaren alorrean sartuta ez zeuden guztiak etxean mantentzea izan zen, eta kalean egote hutsa kriminalizatu egin zen. Horrez gain, auzokoen delazio-jarrerak sustatu ziren (antolaketa soziala/herritarra ahalbidetzen duen edozein sare komunitario edo sozial suntsitzeko modu azkarra bihurtu zen).

Egoera horretan, poliziaren esku hartzeko guneak modu kezagarrian zabaldu dira, poliziaren barne-jarraibide

hutsak legez ezarritakoaren gainetik jarri dira, Zuzenbidean behar den prestakuntzarik ez duenaren (poliziaren) jarduera guztiz arbitrarioak sustatu dituzte botere-guneek, antolamendua garatzeko edozein aukera (protesta, herriko jaiak, autogestionatuak, gaztetxeak...), ia debekatu arte, etab.

Hasiera batean, pandemia egoera zela eta, salbuespen gisa planteatzen zena garatu egin da, halako moldez non erraz ikus baitaiteke eskubide kolektiboak nabarmen murriztu direla, eta, beraz, badirudi lehen aipatutako 2009ko egoerara itzuli garela. Ukaezina da Covid19ren ondorioz sortutako egoerak agerian utzi dituela gizarte kapitalista horretako kontraesan guztiak, eta gizarte-gatazkaren ziklo garrantzitsu bat hurbiltzen ari dela. Hala, “errepresio-esperimentuaren” urte honek klase kapitalistari aurrera egiteko aukera eman dio, eta badirudi bide horretatik jarraituko duela geldiaraztea lortzen ez bada.

Alde horretatik, lehenengo gogoeta garrantzitsua iruditzen zaigu. Ez dugu ahaztu behar eskubideek ez dutela oinarri materialik, klase kapitalistaren eta herri langilearen arteko indar-harremanari erantzuten dioten gizarte-erakuntzak baitira. Benetan existitzen dena herriaren beharrak dira, eta, beraz, oso garrantzitsua da antolaketa egoki bat, herri langilearen oinarritzko beharretatik abiatuta, horiek antolatu eta aldarrikapen eta garaipen bihurtzeko gai izango dena.

Oinarritzko elementuak, hala nola janaria, etxebizitza, hezkuntza edo osasun publikoa, bortizki erasotzen ari dira, eta hori lortzeko eraso bati ekiteko gai ez bagara, ondorioak tragikoak izango dira.

Aurrez aurre erasotu da herritarron segurtasun juridikoaren kontzeptua; batetik, isunen bitartez ezagutuz joan ginelako zein zen poliziaren irizpidea, esaterako, erosketak zilegiak ziren edo ez deklaratzeko. Behin baino gehiagotan, agentearen ustez oinarritzkoak ez ziren produktuak erosteagatik zigortuak izan ziren gure bizilagunak, edota txakurra urrunegi paseatzeagatik, hura kalkulatzeko inongo irizpide ofizialik eskaini gabe.

Honek adierazten duena da polizaren arbitrariotasuna (uler inpunitatea) areagotu dela, eta herri langilea geroz eta babesgabe dagoela estatuaren biolentziaren aurrean.

Esan bezala, kapitalismoaren erasoaldi bortitz baten erdian gaude, eta gu, herri langilea, gaitu jo puntuan. Ezarritako arauetatik ihes egin eta herri gisa autodeterminatu nahi badugu, ezinbestekoa dugu horretara eramango gaituen tresnak sortu eta horien baitan antolatzea, herri mugimenduz ari gara (herri langile antolatuak osatutako hori). **Ikusi dugun moduan, eskubide murrizketak antolaketa horri eraso egiten dio modu zuzenean, eta aurre egingo diogun heinean errepresioa areagotuko dela argi izan beharko dugu. Baina ezinbesteko izango zaigu, bestela ez baitugu etorkizunik izango.**

Askatasun Kolektiboetarako Abokatuak (AKAB)



Gida hau ixtear gauden honetan, badirudi alarma egoeratik atera eta bestelako testuinguruan sartu garela. Aitzitik, beharrezkoa zaigu urte honetan zehar maila juridikoan gertatu diren aldaketak ulertzea eta kokatzea, eta hori da gida honek egin nahi duen ekarpena. Izan ere, ezinbestekoa zaigu gertatu dena ondo ulertu eta bere testuinguruan kokatzea eta, gainera, gaur-gaurkoz indarrean ez dagoen alarma egoera berriz bueltatu daitekeela ere kontuan izan beharko genuke. Horrez gain, osasun-krisiaren testuinguruan hartu diren neurrietako batzuk betikotzeko arriskua egonik, horien kontzientzia eta kritika gauzatzeko parada dugu dokumentu hau.

2020-2021 epealdian herri mugimenduetan borroka eta dinamika berriak piztu dira, baina hainbat militantzia esparru zailtasun ugariarekin ari dira lanean eta haietako batzuk blokeo egoeran daude. Hala ere, mobilizatu

eta elkartzeko zailtasun askotarikoen aurrean, egoerara egokitzeko saiakera egin dugu, unean uneko erronkei heldu eta kolektibo bakoitzaren plangintza eta lan-lerroei ahal den moduan eutsi diegu.

Erakunde publikoen partetik, herri mugimenduen jarduna aitortu ez izanak ondorio argiak izan ditu, lan politikorako oztopo ugari jarri dituzte eta, horren ondorioz, kolektiboen arteko desorekak ere handitu dira. Esate baterako, izaera juridikoa duten eta ez dutenen arteko langa areagotu da, ekimenak antolatzeke baimenei dagokionean, bai eta isunak jasotzeko arriskuan. Era berean, instituzioekin interlokuzio zuzen eta ohikoa ez duten eragileek ez dute horrenbeste aukera izan ekimenak antolatu ahal izateko modu, neurri eta mekanismoak “negoziatzeko”. Haien aukera ia-bakarra gauzak antolatu eta polizia ez etortzeko atzamarrak gurutzatzea izan da. Hau gutxi balitz, eragile horiek, beste herritar askok bezala, zailtasunak izan dituzte informazio fidagarria jasotzeko (esaterako, zer egin zitekeen eta zer ez, edo ze baldintzapean), eta hainbat iturri kontsultatu eta kontrastatu beharrean aritu dira, araudiaren inguruko ziurgabetasunean. Amaitzeko, isunak jasotzeko mehatxuak beldur handia sortu du, eta horrek talde eta kolektiboen sormena mugatu du.


Erakunde publikoek (agente pribatuen presiopean maiz) ezarritako neurriak zehatz-mehatz jarraitzea pandemiari aurre egiteko modu bakartzat aurkeztu da eta, horietako edozein zalantzan jartzea arduragabetzat hartu da, inolako eztabaidarik egotea ekidinez. Interes pribatuak defendatzen dituen Estatuaren figura bakar hori bilakatu da ere mugimenduek egiten zutenaren edo ez zutenaren zilegitasun neurri bakarra, bai maila sozialean zein juridikoan, polarizazio klimaren erdian: neurri guztiak zalantzan jarri gabe betetzea alde batetik eta horietako edozein zalantzan jartzearen erabateko arduragabetasuna bestetik.


Jakitun gara herri mugimenduen baitan pandemiaren kudeaketa kolektiboaren inguruko ikuspegi buruzko eztabaidak egon direla, baita talka eta gatazkak ere. Guk geuk ere zalantzak izan ditugu, testuinguruaren inguruko irakurketa egiterako orduan noraino sakondu genezakeen.

Kaleko mobilizazioez harago, eragile askok haien protokolo propioak sortzeko zailtasunak izan dituzte maiz, eta horrek “airean” utzi ditu: ez dituzte gehienetan protokolo ofizialak desobeditu baina ezta sozialki legitimatuko lituzkeen jarraibide alternatiborik eraiki ere.

Ikasturtea amaitzean dela, herri mugimenduen jardunari ahalik eta indartsuen eusteko sostengua behar dugu eta, batez ere, ekimenak antolatzerako orduan bidea erraztea herri mugimendu guztiei: talde auto-antolatuei, maila nazionalean jarduten dutenei, herrietako kolektibo txikiei... Sostengu eta erraztasun horiek kanpoan bilatu ez ezik, guk geuk gure arteko zaintza eta laguntza horiek sortzeko deia egiten dugu. Gertatutakoaren -eta etor daitekeenaren- irakurketa kritikoak eta ikaspenek elkarlanera eta konplizitate eraldatzaileetara eramane gaitzate, erronka zahar-berriei aurre egiteko. Kaleak berreskuratzeko, geure espazioak defendatzeko eta birsortzeko, finantziario bideak berraktibatzeke zein berrasmatzeko, geure borrokan zilegitasuna indartzeko, geure militantziak modu osasuntsuan eta sostengarrian egiteke bideak topatzeko beharra daukagu, inoiz baino gehiago. Bidea zaila izango bada ere, elkarren ondoan eginda errazagoa, atseginagoa eta eraldatzaileagoa izango da. **Kaleetan ikusiko dugu elkar!**

Joxemi Zumalabe Fundazioa





2020. urtean jendarteko esparru denak gogor astindu dituen COVID19aren fenomenoak heldu zen gurera. Birusak eragindako osasun krisiari bestelako krisiak gehitu zaizkio (soziala eta ekonomikoa), eta horiekin batera kezkak, beldurrak, ezjakintasuna eta ziurgabetasuna zabaldu dira. Herri-mugimenduon esparrua ez da salbuespena izan. Osasun-krisiari erantzuna emateko zenbait neurri eta tresna juridiko eta errepresibo martxan jarri dituzte agintariek, eta horiek eragin zuzena izan dute jendarte orokorraren egunerokoan eta, agerikoa da, herri-mugimenduko eragile eta kolektiboan jardunean ere.

Esku artean duzun liburuxka hau Joxemi Zumalabe Fundazioaren eta Askatasun Kolektiboetarako Abokatuak (AKAB) kolektiboaren arteko elkarlanaren emaitza da. Bertan Alarma Egoerak eta salbuespenezko neurri juridikoek herri-mugimenduon jardunari zelan eragin dioten aztertu nahi izan dugu, ikuspegi kritiko batetik: nolako eskubide murrizketak egon diren, horien eragina zein izan den eta errepresioaren zein marko teorikori erantzun dioten.

Liburuxka plazaratuko dugun momentuan alarma egoera bertan behera gelditu bada ere, elkarlanetik eta herri-ezagutzatik jaiotako lan honek ekarpen interesgarria egin dezakeela uste dugu. Gertatutakoaren -eta etor daitekeenaren- irakurketa kritikoak eta ikaspenek elkarlanera eta konplizitate eraldatzaileetara eramán gaitzaketela, erronka zaharberriei aurre egiteko.